

Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2002ko abenduaren 13a / 521. zenbakia



ANDONI ETXEBARRIA
Galizian boluntario

**“Izugarrria da
hondamendiaren
aurrean zelako
indarra atera duten
Galiziako
arrantzaleek”**

GABONAK: ESKAPARATE LEHIAKETA ABIAN/5 • IGERI ELKARTEA: ARRASATEN ETA LEGAZPIN IGERIAN/10

GREMIOEN GIDA

zure etxearen osasun onerako



AGIRRE MARGOAK

Ortuibar 1, 3-C
943 76 53 82
Tailerra:
Alkabieta 7

- Orotariko pintaketa lanak

ARISTEGI-TOLA ITURGINTZA



Bolu 26
943 76 54 17

- Kalefakzioa
- Bainurako altzariak eta dekorazioa
- Konponketak

ARREGI AROZTEGIA



Urteaga 20
943 76 11 73
Erakusketa:
Bidekurutzeta 38
943 76 31 03

- Orotariko arotz lanak
- Sukaldeak
- PVC leihoak

ELKAR ELEKTRAGINTZA

Koldo Elizalde 8
943 76 00 00

- Mota guztietako instalazioak



GUREN INTURAK

Irala kalea z/g
943-76 33 01
F 943 76 33 01

- Orotariko pintaketa lanak

Iturkintz Berri S.L.

Amillaga 1
943 76 28 04
F 943 76 36 58

- Bainurako altzariak
- Era guztietako kalefakzio instalakuntzak

J.M. IZAGIRRE Igeltseritza

Loidi baserria,
Angiozar
943 76 56 86

- Teilatu, fatxada, sukalde eta bainugelen berrikuntza

Antonio Bouzas

Zurradero 8, 1-A
943 76 06 12
689 805 802

- Margoak eta dekorazioa



MATXIATEGI S.L. ELEKTRAGINTZA

Zurradero 8
943 76 19 94

- Material eta etxeko tresna elektrikoak
- Instalazioak
- Hari musikala

Andres margoak

Zubiaurre 19
Ozaeta 9
669 887 814
669 887 815

- Pintura dekoratiboa

BERGARA Margoak

Amillaga 1, 1. pab.
162 p.k.
943 76 97 31
F 943 76 97 32
bergara.margoak@terra.es

- Orotariko pintaketa lanak
- K-21 agiria



Matxiategi 16
943 76 29 97
F 943 76 04 22

- Diba: bainuaren diseinu osoa
- Gas instalazioa
- Berogailuak

UGARTE ARROZTEGIA-ALTZARIAK

San Juan 1 A
943 76 54 91
F 943 76 08 04

- Orotariko arotz lanak
- Apainketa, soruak, leihoak, atek



UR kristaldegia

Martoko 1-3
943 76 54 68


- Ispiluak
- Beirateriak
- Biselatuak
- Plastikokoak

E izarra elektrizitatea

Zubieta 10
943 76 54 10
943 76 19 99
943 76 10 60

- Orotariko instalazio elektrikoak

ATREBENTZIAEZPADA/ Badaukazue Gabonetan etxia apaintzeko ohiturarik?



ANTONIO MARTÍNEZ
72 urte




MARIA JESUS ARANDO
65 urte



ALICIA MARCOS
74 urte



SILVESTRE BEGIRISTAIN
71 urte



JESUS IBARGUREN
54 urte



MAIDER IRAGI
24 urte

Ondiokan ez dittugu ipiñi, baiña urtero jartzen dittugu Gabonetako apaingarriak. Piñua jartzen dogu, normalian, betiko ohituriakin jarraitzeko, eta asko gustatzen jaku.

Bai, gauzatxoren bat jartzen dogu. Zuhaitza jartzen dogu, normalian. Ume txikixak etxera etortzen die eta ilusiñua egiten dotse. Lehenago be jartzen giñuan, beti jarri izan dogu.

Zuhaitza eta jaiotzia jartzen dittugu. Ixa urtero jartzen dittugu, gustau egitten jaku. Billobak etortzen dienen ilusiñua egiten dotse, baiña geuri be gustatzen jaku bestela be.

Bai, zeozer ipintzen dot. Jesus haurtxua sehaskan, Olentzero eta bestelako apaingarri batzuk be bai. Normalian, beti ipintzen dittugu; hemen bagare, behintzat.

Bai, jartzen dittugu Gabonetako apaingarriak. Normalian, jaiotza txiki bat eta zuhaitza jartzen dittugu. Betidanik jarri izan dittugu; umiak txikixak zientetik, behintzat, bai.

Etxian belardixa daukagu, eta hango piñu bat argixekin eta bestelako gauzatuexuekin atontzen dogu. Etxe barruan Olentzero ipintzen dogu. Gurian beti egon da horretarako ohiturria.

TXALOKETA TXISTUAK



TXISTUAK TELEFONICA OSTEKO KALEXKA Telefonico kalexkaren egoeraz kexatu dira hango bizilagunak. Udalak Telesforo Aranzadiko lehen zenbakian bizi direnei kalexka txukunduko zuela agindu zien, igogailua erabiltzen dutenek atarirako sarrera hantxe dutelako. Foko bat besterik ez dute jarri, eta astelehenetan, batez ere, kalexka oso zikin egoten dela-eta kexu dira auzokoak. /E.M.

ETABARRUAN...

ASTEKO BERRIAK / 5

KIROLAK / 10

KULTURA / 12

Erakusleho Lehiaketa

Gabonetako Erakusleho Lehiaketa abian da. Bost establezimenduri emango diete saria.

Leire Lasak zilarra lortu

Leire Lasagimnastak zilarrezko domina lortu zuen Ipurua taldearekin Murtzian.

Tren Literarioa domekan

Ipuinak, bertsoak, poesia, musika eta irudiak uztartzen dituen ikuskizuna Zabalotegin, 18:30ean.

ASTEKO DATUA

93

25 URTEZ AZPIKOEN %93K ONDO DAKITE EUSKARAZ

Euskara Zerbitzuak kaleratutako datuen arabera, Bergara gero eta euskaldunagoa da. Besteak beste, 25 urtez azpiko bergararren %93k ondo dakite euskaraz eta beste %5ek ulertu egiten dute.

BESTEKE SANA

“ Isolamendua pertsonak desitxuratzeko, desekilibratzeko eginak daude, presoaren burua eta izakera apurtzeko. Tresna errepresibo moduan erabiltzen dute. Isolamenduan zu bakarrik zaude. Gelan bakarrik eta ia ezer ez gabe. (...) Politika hau diseinatu zutenek denbora gutxian apurtuko gintuztela uste zuten. **JOSE MARI ETXANIZ / Preso ohia 'Etxerat' / 2002ko azaroa, 10. zenb.**

“ Bizkaiko Bertsozale Elkartearen zeregin bat, garrantzitsuena noski, bereziki bertsolari gazteentzat saioak eratzekoa zen, non gelditu da erantzukizun hori? Bizkaiko bertsolarien etorkizuna bermatu nahi bada, morroi izateari laga eta bertsolari berrientzat plazak sortzea da. **ANDRES OSA "SAKONA" / Kazetaria 'Deia' / 02-12-09**

BERAIEK DINOE / Ainhoa Agirreazaldegia



Bidezko Merkataritza

Gose denari ez eman arrainik, arrantza egiteko kainabera baizik, dio esaera batek. Hegoaldeko herri behartsu eta azpigaratuei hobe da bizibide duinak ahalbidetuko dituzten laguntzak eskaintzea, limosna ematea baino. Bidezko merkataritzaren helburu nagusia horixe da: Hegoaldeko ekoizleei euren produktuengatik bidezko prezioak ordaintzea, produktu horiek baldintza duinetan ekoitzi direla bermatzea, eta ahalik eta bitartekari gutxien erabilia ahalik eta bide zuzenena ezartzea ekoizlearen eta kontsumitzaileen artean.

Bidezko merkataritzan diharduten inportatzaileek ekoizleei erosten dizkiete zuzenean produktuak -kasu askotan, ekoizle horiek laguntza eta maileguak ere jasotzen dituzte euren produkzio sistemak hobetzeko- eta zorrotz begiratzen dira produkzio prozesuak: ekoizle elkar-

ek demokratikoak izan behar dute, ez dira langileen esplotazioa, osasunerako kaltegarriak izan daitezkeen lan-baldintzak edo eta umeen lana onartzen, ezta emakumeekiko diskriminazioa ere; gaitzetsi egiten da naturaren hondamendia dakarren produkzio eredua...

Azken batean, ekoizleen bizibaldintzak hobetzea, horien bidez euren herrien garapena ahalbidetzea, harreman komertzial ekonomiko zuzenagoak bideratzea eta kontsumitzaileei kalitatezko produktuak eta etikoki duinak direnak eskaintzea da helburua.

Gabon garaia badator. Urte sasoi honetan sekulako dirutzak gastatzen ditugu janari edari eta oparietan. Bakoitzak erabakiko du zenbat gastatu, baina nik behintzat gauza bat argi daukat: saiatuko naiz nire erosketak Arrasateko Maxi Eroskiko sarreran dagoen Bidezko Merkataritzako dendan egiten. Egizue zuek ere osteratxo bat.

“Ni saiatuko naiz Gabon erosketak Arrasateko Maxi Eroskin dagoen Bidezko Merkataritzako dendan egiten”

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Monika Belastegi,
Aintzane Irizar
MAKETAZIOA
Iñaki Iturbe

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Maitane Arizabaleta
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkorobereibar

LEGE-GORDAILUA
55-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurilaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 13**
CAMACHO, Oxirondo 4 943 76 11 74
- ZAPATUA, 14**
PUY, Barrenkalea 25 943 76 16 87
- DOMEKA, 15**
PUY, Barrenkalea 25 943 76 16 87
- ASTELEHENA, 16**
GUALLAR, San Antonio 5 943 76 11 05
- MARTITZENA, 17**
ESTELLA, Matxiategi 5 943 76 19 63
- EGUAZTENA, 18**
MOZOS, San Pedro 4 943 76 12 15
- EGUENA, 19**
CAMACHO, Oxirondo 4 943 76 11 74

TELEFONOJAKINGARRIAK

- OSASUNA / LARRIALDIK**
- Anbulatorioa (txanda) 943 76 24 40
- Bergarako Udaltzaingoa 943 77 91 06
- Antzuolako Udaltzaingoa 943 76 62 46
- Ertzaintza 943 76 53 40
- Osasun etxea 943 76 24 40
- Asepeyo 943 76 16 43
- Pakea 943 76 13 49
- Angiozarko medikua 943 78 90 27
- Antzuolako medikua 943 76 62 23
- Odol emalleak 943 76 16 24
- Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06

- GARRAIOAK**
- Taxiak 943 76 19 50

- UDALA**
- Bergarako Udaletxea 943 77 91 00
- Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46
- Udal Artxiboa 943 77 91 32
- Igerilekuak 943 76 20 51
- Kultura etxea 943 77 91 58
- Liburutegia 943 77 91 62
- Kiroldegia 943 76 56 41
- Mizpirualde egoitza 943 76 13 68

- BESTELAKOAK**
- Epaitegia 943 76 14 92
- Erregistroa 943 76 13 15
- Jardun 943 76 36 61
- Idolaz 943 76 65 08
- Erretiratuen etxea, Bergara 943 76 21 40
- Antzuolako erretiratuen elk. 943 76 62 71
- Postetxea 943 76 26 85
- Bedelkar 943 76 04 68
- Akulu AEK 943 76 05 18
- Udal Euskaltegia 943 76 44 53
- Bergarako notariotza 943 76 10 73

MEZAK

- | | |
|-------------------|---------------------|
| San Pedro | Labegarieta |
| Domekak: | Domekak: 11:00. |
| 09:30, 12:30. | San Lorentzo |
| Zapatuak eta | Zapatuak: |
| lanegunak: 19:00. | 20:00. |
| Sierbak | Angiozar |
| Lanegunak: 19:15. | Domekak: |
| Zapatuak: 19:00. | 11:30. |
| Domekak: 11:30, | Moja |
| 13:00. | Zaharrak |
| Osintxu | Lanegunak: 9:00. |
| Domekak: 12:30. | Zapatuak: 11:00. |
| Zapatuak: 19:00. | Mizpirualde |
| Elosu | Lanegunak: 11:45. |
| Domekak: 10:30. | Zapatuak: 17:30. |
| Ubera | Antzuola |
| Domekak: | Domekak: |
| 10:30. | 09:00, 11:30. |
| San Juan | Zapatuak eta |
| Domekak: 11:00. | lanegunak: 19:30. |
| Elorregi | Uzarraga |
| Domekak: 10:30. | Domekak: 10:00. |

- URTE-MEZAK**
- Santa Marina**
Hileko bigarren astean, domekan, 11:30ean.
- San Pedro**
Hileko hirugarren astean, domekan, 12:30ean.

OHARRAK

1984AN JAIOTAKOAK
1984an jaiotako bazkaria, abenduaren 24an. Egun horretan kantuan egitera irtengo dira eta gero, bazkaria egingo dute. Izenematea, Etxagin, Kortazarren edo Bikon, abenduaren 11ra arte.

ESKI DENBORALDIRAKO BONOAK
Pol-Pol Mendizale Taldeak eski denboraldirako bonoak salgai jarri ditu. Astuneko estaziorako prezioak honako hauek dira: 430 euro helduendako eta 345 euro gaztetxoendako. Candanchurako, berriz, helduenak 398 eurotan, helduenak 319 eurotan salgai daude eta 319 eurotan gaztetxoena. Argibideak 943 76 48 51 telefonoan.

GABONETAKO KONTZERTUA
Datorren zapatuan, hilaren 21ean, Udal Pilotalekuan izango den Gabonetako kontzerturako sarrerak salgai daude Musika Eskolan eta Lazkano oinetako dendan.

'OLIVER' MUSIKALA BILBON
Bergarako Orfeoak Gabonetan Bilboko Euskalduna jauregian egingo duen *Oliver* musikala ikusteko sarrerak salgai daude. Emanaldiak urtarrilaren 2an, 3an, 4an eta 5ean izango dira. Sarrerak BBKn edo 94 431 03 10 telefono zenbakian eros daitezke.

ODOL ATERATZEA
Urteko azken odol ateratzea egingo dute eguaztanean, hilaren 18an, Seminarioko lokalean, 18:30ean.

KZGUNEAN IKASTAROAK DOAN
Irizar Jauregiko lehenengo solairuan dagoen KZGuneak herritar guztiendako Informatika ikastaroak eskaintzen ditu. Besteak beste, Interneten nabigatzeko eta prestakuntzako ikastaroak antolatu dituzte. Argibideak: 943 76 73 24.

URBANOENORDUTEGIA

San Lorentzo / San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.

GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurra, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegarieta / Olabarrenetik irteerak
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.

GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10URTEBERRIGARAN

Ortonovoko italiarrak bisitari izan ziren Bergaran

1992ko abenduan, Ortonovoko italiar espedizioa bisitari izan genuen. Udan margolari bergarrek Italian erakutsitako lanak ekartzeaz gain, italiarrek Bergaran egiteko zuten erakusketa zehaztera etorri ziren. Bergarako 29 margolariren lanak ikusgai izan ziren udan Ortonovon.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Perratzaillia"



Ferratzailea.
— *Osintxuko perratzailliakin egon naiz.*

ASTEKO FILMAK

'OCHO MUJERES'

ZUZENDARIA: FRANÇOIS OZON. **AKTOREAK:** CATHERINE DENEUVE, ISABELLE HUPPERT, EMMANUELLE BEART.

HARIA. Gabonak heldu aurretik familia burges baten hilketa bat izango da, eta susmagarriak zortzi emakume izango dira. Oscarretarako Frantziako hautagaia.

TOKIA ETA ORDUA. Egubakoitzean, 22:30ean; zapatuan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean; domekan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:15ean; eta astelehenean, 19:30ean (ik. eguna).

PUNTAZIOA: ● ● ● ● ●



'DESEO'

ZUZENDARIA: GERARDO VERA. **AKTOREAK:** LEONOR WATLING, LEONARDO SBARAGLIA, CECILIA ROTH.

HARIA. Espainiako gerraren ostean, *Elvira*-ren egoera larria da: aita komunista izateagatik fusilatuta dute eta ama oso gaixo dago. Etxe garbitzaile lanetan hasiko da, eta jatorri alemaniarra duen *Pablo* argentinarra ezagutuko du. Hark poesiaren eta edertasunaren mundua erakutsiko dio.

TOKIA ETA ORDUA. Zine-kluba. Eguenean, hilak 19, 20:00etan.

PUNTAZIOA: ● ● ● ● ●

BERGARA Margoak

Kalitatea eta zerbitzua.

Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 97 31 Faxe: 943 76 97 32. bergara.margoak@terra.es

K21
KALITATEA
Enregistratuta Espainia ZK. 2/02/020
2 Maila

GABONAK/ Gaur, egubakoitza, kaleetako argi apaingarriak piztuko dituzte eta udaletxeko jaiotza ikusgai jarriko dute

Gabonetako Erakusleiho lehiaketak herriko bost establezimenduri emango die saria

MONIKA BELASTEGI

Gabonak hurbiltzen ari direla nabaria da, dagoeneko. Erakusleiho lehiaketa, esaterako, abian da eta azken urteetan bezala, herriko bost establezimendu sarituen izena jakingo dugu abenduaren 20an. Bestalde, gaur, egubakoitza kaleko argiak piztuko dituzte.

Udalak Bedelkar elkartearen laguntzarekin antolatutako erakusleiho lehiaketak herriko merkataritza-establezimendu guztiak hartuko ditu kontuan, aurrez izena eman barik; dena den, erakusleihoak abenduaren 26ra bitartean egon beharko dute apainduta.

Sariak ematerakoan kontuan hartuko dituzte publizitate-mezuaren imajinazioa, orijinaltasuna eta eraginkortasuna eta erakusleihoaren kalitatea. Horrez gain, establezimenduan saltzen diren ohiko artikulak agertu beharko dira erakusleihoetan, eta, gainera, apaingarri gisa gorostirik, goroldiorik, erratzik eta izei naturalik ez erabiltzea eskatu du Udalak.

Epaimahaiari dagokionez, Jarduerak, Kultura Taldeak, Gazteria eta Jai batzordeak, Bedelkar-ek eta Beart-ek izendatutako ordezkariak osatuko dute, eta erabakia datorren egubakoitzean, abenduaren 20an, emango dute aditzera. Bost sari egongo dira lehiaketan: 150 euro eta garaikurraren izango ditu saria jasotzen duen bakoitzak.

Horrez guztiaz gainera, eta epaimahaiaren lana errazte aldera, Kultura Zerbitzuak adierazi du komeni dela erakusleihoak argizatuta edukitzea lehiaketak irauten duen bitartean: lanegu-



MONIKA BELASTEGI

Herriko establezimendu guztiak hartuko dituzte kontuan erakusleiho lehiaketan eta sariak abenduaren 20an emango dituzte.

Epaimahaiak aukeratutako bost merkataritza-establezimenduk izango dute saria

Udaleko, Bedelkar-eko eta Beart-eko kideek hilaren 20an emango dituzte aditzera sarituak

Kaleetako argi apaingarriak gaur piztuko dituzte eta urtarrilaren 7an, berriz, kendu

netan, dendak ixteko ordura arte eta jaiegunetan eta bezperetan, 21:00ak arte.

Informazio zabalagoa, kultura etxean (943 77 91 58/943 77 91 59) eta Bedelkar-en (943 76 04 68).

GABONETAKO ARGIAK ETA JAIOTZA

Bestalde, Gabonen atarian gauden adierazgarri, gaur, egubakoitza, Gabonetako argiak piztuko dituzte. Herriko hainbat kaleetan jarri dituzte argiak: San Martin plazan, Bidekurutzeta kalean, Espoloian, San Pedro kalean, Artekalean, Arruriaga kalean, Fraiskozuri plazan eta herriko sarreretan. Horrez gain, auzoak ere apaindu dituzte: Osintxu, Angiozar, Elorregi, Ubera eta Elosu auzoak, hain justu ere.

Gabonetako argien aurrekontua 18.500 euro ingurukoa izan da, eta urtarrilaren 7an kenduko dituzte. Bestetik, jaiotza ere gaur, egubakoitza, jarriko dute ikusgai udaletxeko sarreran.

MATERIAL BILKETA MARTUTENENKO ESPETXEKOENDAKO

Santa Marina parrokiak Martuteneko espetxean preso daudendako material bilketa kanpaina jarri du abian. Batu nahi duten materiala honakoa da: gizon zein emakumeendako barruko arropa berria, galtzerdiak, telefono txartelak, tabakoa eta metxeroak, hortzetako pasta eta eskuilak, gutun-azalak eta zigiluak, xanpua, bainurako xaboia, desodorante barra, oihailezko mukizapiak, pilak eta turroi biguna.

Bilketa abenduaren 20an, egubakoitza, amaituko da, eta materiala Santa Marina parrokiako egoitzara, Alkabieta 1era, eramane behar da, asteleheneetik egubakoitzera, 18:00etatik 20:00etara.

Kirolgune berriaren gaineko erakusketa


MONIKA BELASTEGI

Agorrosingo kirol instalazio berrien proiektuaren gaineko erakusketa irekiko dute, astelehenean, Udaleko Gobernu batzorde gelan. Hainbat paneletan kirolgune berriaren eskainiko dituzten zerbitzuak, epeak, kostuak... ikusgai izango dira. Bestalde, Iñaki Ugarteburu Bergarako Udaleko Kirol teknikaria han izango da azalpenak emateko.

Erakusketa zapatuta arte, abenduak 21, egongo da zabalik, eta honako ordutegia izango du: asteleheneetik eguaztenera,

11:00etatik 13:00etara; eguenean eta egubakoitzean, 17:30etik 19:30era; eta zapatuan, 10:00etatik 13:00etara.

Horrez gain, prentsaurrekoa ere egingo dute Udaleko ardura-dunek, astelehenean, proiektuaren berri emateko. Victoriano Gallastegi alkatea, Xabier Zabalera Kiroletako zinegotzia, Alvaro Pérez de Amezaga arkitektoa eta Iñaki Ugarteburu Kirol teknikaria izango dira. Ekitaldi berean kanpoko igerileku txikiaren behin-behineko estaltzea ere azalduko dute; baita 2003. urteko egitasmoaren berri eman ere.



ARTXIBOA

Kirolgune berriaren proiektuaren gaineko erakusketa epeak, kostuak, zerbitzuak... azaltzeko jarriko dute.



MONIKA BELASTEGI

Kanpainaren barruan, torturaren gaineko erakusketa jarri dute ikusgai gaztetxean.

TORTURA/ Torturaren aurkako kontzientzia hedatzea da epe laburrean duen helburua

Abian torturaren aurkako sentsibilizazio kanpaina

MONIKA BELASTEGI

Bergara Torturaren Aurka izeneko sentsibilizazio kanpaina jarri dute abian hainbat herritarrek. Helburua tortura desagerraraztea den arren, epe motzerako helburuari ekingo diote, lehenik, herritarren artean torturaren aurkako kontzientzia hedatzeari, hain justu.

Kanpaina aurrera eramateko lehen urratsa lantaldea eratzea izan da. Horretarako, 5.000 idatzi inguru postontziratatu zituzten joan den astean herrian barrena, batzar baterako dei eginez, kanpainaren bultzatzaileen esanetan, "gure asmoa lantalde irekia antolatzea delako".

Deialdiak erantzun "epela" izan duela adierazi dute: "Jende gutxi etorri zen astelehenean batzarrera", eta horrek "are age-

riago utzi du torturaren gainean sentsibilizazio eta kontzientziatze kanpainaren beharra. Tortura egunerokoa dela inork ezin du ukatu, denok dugu hurbilean ezagunen bat torturatu dutena, baina, hala ere, askotan, nahiago izaten dugu horrelako ankerkerien aurrean itsu, gor eta mutu gelditu".

KANPAINAREN LEHEN URRATSAK

Kanpainaren bultzatzaileek taldea irekia dela berretsi dute eta

*Epe laburreko
helburua da
herritarrek
torturaren aurka
kontzientziatzea*

interesa duten guztiak parte hartzea gonbidatu nahi dituzte. Gainera, kanpainaren lehen urratsak ematen ere hasi dira: egunotan, torturaren gaineko erakusketa dago ikusgai gaztetxean. Astelehenera arte egongo da han, eta gero, auzoetara eramateko asmoa dute.

Horrez gain, laster, sinadura bilketa ere hasiko dute. Sinadura bilketa hori legedi antiterrorista ezabatzearen aldekoa izango da, Espainiako Estatuari atxilotuei dagozkien eskubideen errespetuan oinarritutako bederatzita puntu onartzea eskatzeko. Besteak beste: bost eguneko inkomunikazioa ahalbidetzen duen legea ezabatzea, atxilotuak sendagilea aukeratzeko aukera izatea, *habeas corpus* eskubidea ezartzea eta erabiltzea, eta tortura testigantzen aurrean epaileek sakoneko ikerkuntza egitea.

Komertzioetan euskara bultzatzeko beste urrats bat

MONIKA BELASTEGI

Udaleko Euskara Zerbitzuak Zabaldu atia euskeriari kanpaina jarri du abian. Herriko merkatariei zuzenduta dago kanpaina, eta helburua da komertzioetan euskararen erabilera bultzatzea.

Euskara Zerbitzuaren arabera, bergararren %70ek ondo dakite euskaraz eta beste %10ek ulertu egiten dute. 25 urtetik beherako kasuan, %93k ondo dakite euskaraz eta beste %5ek ulertu egiten dute. Hala, horrek erakusten duenez, bezero gehienak euskaldunak dira eta etorkizunean ia guztiak izango dira euskaldunak.

Hori dela eta, Udalak uste du dendariak errealitate horretara egokitu eta herriaren hizkuntza egoera kontuan izan behar dutela negoziario zein hizkuntza erabili erabakitzeke orduan.

Dendariak lana errazteko, hizkuntza aholkularitzarekin lotutako hainbat laguntza eskainiko dizkie Euskara Zerbitzuak *Zabaldu atia euskeriari* kanpainaren barruan: batetik, behin eta berriro erabiltzen dituzten agiri-ordainagiriak, fakturak, aurrekontuak... euskarazko ereduak eskainiko dizkie; eta, bestetik, euskaraz idazterakoan sortzen zaizkien zalantzak argitzen ere lagunduko die, baita kartel komertzialak egiten lagundu ere.

LABUR

Gabonetan 'SOS Sahara' kanpaina egiteko lantaldea osatzeko deialdia egin dute

Saharari laguntzeko asmoz, *SOS Sahara* izeneko kanpaina jarri nahi dute abian hainbat herritarrek Gabonetan. Helburua da janaria batzea eta gero Saharara bidaltzea. Kanpaina abian jartzeko, laguntza taldea eratu nahi dute herrian, eta horretarako gertu dauden guztiei dei egiten diete abenduaren 17an, martitzenean, 19:30ean, kultura etxean egingo duten batzarrera.

Film laburren emanaldia datorren eguaztenera, hilak 18, atzeratu dute

Datorren eguaztenera, hilaren 18ra, atzeratu dute Bergarako Herri Mugimenduaren Hamabostaldiaren barruan egin behar zuten film laburren emanaldia. Novedades aretoan izango da, 20:00etan, eta Asier Altuna *Kixi*-ren lau film labur ikusteko aukera egongo da: *Topeka*, *Basurdea*, *Belarra* eta zehaztu bako laugarren bat.

Esklerosiaren gaineko sentsibilizazio kanpaina egingo dute bihar, zapatua

Gipuzkoako Esklerosiaren Elkarteak (ADEMGI) gaitz horren gaineko informazioa zabaltzeko mahaia jarriko du bihar, zapatua, Irala kalean, 10:00etatik 13:00etara. Nahiko ezezaguna den gaixotasun horren gainean sentsibilizazioa piztea da helburua.

Arrano tabernan eta gaztetxean azaldutako pintaketak salatzeke manifestazioa zapatuan

Joan den astean Arrano tabernan eta gaztetxean azaldutako pintaketak salatzeke asmoz, kale agerraldirako deialdia egin dute. Manifestazioa bihar, zapatua, izango da, eta 19:30ean abiatuko da, San Martin plazatik.

Herran

ELEKTRIKAKO TRESNAK

Soinua, telebista, hozgailuak...

Matxiategi, 3
943 76 12 22

SUKALDEKO ALTZARIAK

Vegasa banatzaile ofiziala

Matxiategi, 4
943 76 37 53

vegasa



ELKARRIZKETA

ANDONI ETXEBARRIA/PASAI DONIBANEKO ALBAOLA ELKARTEKO KIDEA

“Galizian guztia antolatzen eta lanean ari direnak arrantzaleen kofradiak dira”

MONIKA BELASTEGI

Joan den asteburuan Galizian izan zen Andoni Etxebarria, *Prestige* itsasontziak eragindako hondamendiaren aurrean “apur bat laguntzen”. Han ikusitakoaz, ikasitakoaz eta jasotako inpresioez jardun du Andonirekin.

Asteburuan Galizian izan zarete, garbitze lanetan laguntzen.

Eguen gauean irten ginen. Gau osoa autobusean egin genuen, eta egubakoitzean, 08:30 aldera, O Grovera heldu ginen. Han zain genituen hainbat antolatzaile, eta bi hondartzatan jardun dugu lanean.

Antolatutako irteera baten joan zara.

Pasai Donibaneko Albaola elkarteak antolatutako irteera izan da. Orain dela lau urte sortu zen, Pasaian, eta helburu nagusietakoa da euskal itsas ondarea berreskuratzea eta hedatzea.

Horren ildotik, joan den urtean Galizian izan ginen: Pasaiatik Galiziara itsasontziz joan ginen, arraunean, eta han oso jende jatorra ezagutu genuen. Bidaiaren zati bat ere hango hainbat lagunekin egin genuen. Horrez gain, aurretik ere Galiziako hainbat elkarterekin harremana genuen.


Hori dela eta, *Prestige*-ren hondamendiaren aurrean gure laguntza eskaini behar geniela pentsatu genuen. Nahiz eta halako hondamendi handi baten aurrean gure laguntza txikia izan den. Baina, behintzat, bakarrik ez dardela jakiteko balio izan du.

Autobusa betetzeko asmoz irratian ere deialdia egin zenuten.

Roge Blascoren saioaren bitartez egin genuen deia. Elkarteak 16-17 lagun joateko gertu geunden, eta, autobusa antolatzeko aukera zegoela ikusi genuenez, deialdia egitea pentsatu genuen. Eta erantzuna primerakoa izan zen: berehala bete genuen autobusa.

Gainontzean, lanerako materiala zuek eraman zenuten.

Bai. Jantziak eta beharrezkoa zen tresneria hemendik eraman genuen. Izan ere, jakin bagenekien inongo antolamendurik gabe berrogei lagun hara joatea haiei lan handiagoa ematea izango zela. Orduan, lana erraztearren, Eusko Jaurlaritzarekin, Foru Aldundiarekin eta Pasaiko Udalarekin harremanetan jarri ginen, eta haien bidez lortu genuen materiala: jantziak, esku-larruak, maskarak, betaurrekoak, palak, saskiak, eta abar.



EDU MENDIBIL

“Hondartzara heldu eta berehala jabetu ginen gertatutakoa hondamendi handia izan dela”

Bestalde, autobusean gurekin batera Jaurlaritzako Ingurumen Saileko arduradun bat ere etorri zen. Hala, eta haren bitartez, Sabin Intxaurrearekin harremanetan izan gara, Galizian geunden bitartean, hangoaren berri emateko.

Iritsi eta zein izan zen lehengo inpresioa?

Han benetan lanean ari direnak eta guztia antolatzen ari direnak arrantzaleen kofradiak direla. Eurak dira kementu guztia jartzan ari direnak hura aurrera ateratzeko eta antolatzeko.

Zelan antolatu zineten lanerako?

“Kexu nagusia da gobernuaren jarduteko moduaz: berandu esku hartu duelako, eta gaizki”

Iritsi eta berehala, arduradun bat jarri ziguten. Egubakoitz goizean, lanera joan aurretik, ondo jantzi, eta arduradunak hondartza batera eraman gintuen. Hondartza hura, gainera, armadaren eremua zen, eta berez sarrera debekatuta egoten da. Hori dela eta, arrantzaleek hasiera baten arazoak izan zituzten hara sartzeko, baina gu joan ginenerako guztia konponduta zegoen.

Hondartzara heldu ginenean, berehala konturatu ginen hondamendi handia gertatu dela. Kamioiak, kontainerrak, traktoreak... Guztia fuel-oiloz zikin, beltz ikusten da; jende pila bat

“Kanpotik joan garen boluntario guztiekin izan duten harrera eta jarrera aparta izan da”

lanean, guztiak goitik behera zikin. Eta jendearen artean murgiltzen gindoazen neurrian, han gertatutako hondamendiaz hobeto jabetu ginen. Eta hori, gu Arousako zonan egon ginela; izan ere, guri garbiena tokatu zaigula esan daiteke. Coruña aldean are gogorragoa izan da.

Benetan, Galizian izugarriko hondamendia gertatu da; urteak beharko dira hura berreskuratzeke. Hangoek esaten zuten, momentuz, fuel-olioa kendu besterik ez dira egiten ari. Benetako garbiketara gero etorriko da.

Zein dira hangoen kezka eta kexu nagusiak?

Aurrez ere beste marea beltz batzuk izan dituztelako, badakite hori guztia berreskuratzea bitartean diru asko galduko dutela.

Bestalde, kexu nagusia gobernuak jarduteko izan duen moduaz da: oso berandu esku hartu delako, eta gaizki, gainera; garrantzi txikia emanez gertatutakoari eta oso medio gutxirekin.

Horrez gain, gobernuaren inguruko komunikabideetatik eman izan den informazioa manipulatu dagoelako ere kexu dira. Are gehiago, komunikabideetan azaldu ei da boluntario faltarik ez zegoela, eta Galiziako hainbat tokitan oztopoak jarri dizkiete lan egin nahi zuten boluntarioei; horrela, agerian ez uzteko gobernuaren borondate eskasia.

Momentuan zein behar dute?

Gertatutako guztia ondo argitzea, eta gobernuak onartzea zenbat akats egin dituen, nahiz eta zaila izango den. Eta horrez aparte, laguntzak jasotzea alde guztietatik: materiala, pertsonala, ekonomikoa. Batez ere, mariskotara dedikatzen den jendeak esaten zigun Gabon inguru hau dela sasoirik egokiena mariskoa saltzeko. Urtean barrera, bestela, oso gutxi saltzen dela. Orduan, sasoi honetan hirurehun edo laurhun mila pezeta irabazteko asmoa zuten, baina guztia galdu dute. Eta diote gobernuak ematen ari den diru huskeria horrekin, 40 euro, ez dela ezer konpontzen.

Horren guztiaren aurrean sentimendu nagusia zein da?

Benetan triste daudela ikusten da, eta oso kezkatuta, aste honetan beste marea bat, hirugarrena, etor daitekeela esaten dutelako. Gainera, eta dagoeneko ez dago ezkututzerik, *Prestige*-tik fuel-olioa etengabe ateratzen ari dela. Hori dela eta, konturatu dira hondamendia izugarri handia dela eta urte asko beharko direla guztia berreskuratzeke. **Zer da honetan guztian azpimarratuko zenukeena?**

Jendearen jarrera. Horrelako hondamendi baten aurrean lurjota geratu beharrean zelan ateratu duten indarra hango arrantzaleek, hasieran, oso medio eta laguntza gutxirekin egoerari aurre egiteko. Hori azpimarratuko nuke, alde batetik, eta, bestetik, kanpotik joan garen boluntario guztiei egin diguten harrera ona eta gurekin izan duten jarrera aparta. Gainera, boluntario pila bat joan da joan den asteburuan, eta guztiak hartzeko, antolatzeko eta ondo tratatzeko ahalmena izan dute.

Benetan merezi duen jendea da, oso jatorrak dira, eta euren alde zerbait egitea merezi dute.



JARDUN ELKARTEAREN ZOZKETA

Jardunek Egileorren omenez antolatutako bertso jaialdian egindako zozketan Nati Gabilondo izan da irabazlea. Irabazi ditu Anduru Anduru landetxean gau bateko egonaldia bi lagunendako eta Avenidan afaria. Argazkian, Nati eta Eider Arzelus kultur dinamizatzailea.



SIMON ARRIETA TXUKUNTZEN

Simon Arrietako Kutxako sarreraren ondoko jardineria txukundu egin dute. Oso txarto zegoela-eta, harrizko estaldura jarri diote. Simon Arrieta plazan dagoen moduko hesitxoare ere jartzeko asmoa dago. Txarto zeuden baldosak ere aldatzen dihardute Udaleko langileek.



ARANZADI IKASTOLAKO JAIA

Aranzadi Ikastolako ikasleek San Frantzisko Xabierren omenezko jaiaren egun zuten aurreko eguaztenean, abenduaren 11n. Eguraldi txarragatik ezin izan zuten ikastolako patrioiaren eguna egunean bertan ospatu, abenduaren 3an, hain zuzen. Baina ikasleak gogo biziz ziren hain gogoko duten jaiaren egiteko, eta eguaztenean, eguraldia lagun, hainbat ekitaldi izan zituzten Seminarioko patioan. OHOk lehen mailatik seigarren mailara bitarteko ikasleak batu ziren, eta ederto asko pasatu zuten elkarrekin, Olinpiadetan baleude bezala...

Ganbara

TABERNA

Heure erara
ibiltzeko!

Irala z/g.
BERGARA
Tel. 943 76 55 75



IRRINTZI
kafetegia

Irala 3. BERGARA
Tel.: 943 76 48 26

Dixula

BOKATAK
DAUZKAGU

Barrenkalea 32
BERGARA
Tf. 943 76 44 95

Radio Bergara

Etxetresna elektrikoak
Sakelako telefonoak
Lanparak
Opariak

San Pedro 25
BERGARA
943 76 19 89

GARRAIOAK ANDUZU TRANSPORTES

BERGARA
607 349 043



Grua zerbitzua
Zerbitzu publikoa eta
era guztietako kargak

AGIRREBEÑA JATETXEA

Berritua
eta
handiagoa

- Berritua eta handiagoa: 90 lagunendako janlekua
- Eguneko menua, asteburuko menua eta karta
- Etxeko postreak
- Asteburuetan, mariskoa eta arraina, aurretik eskatuta

Ibarra kalea 2, Bergara. Telefono BERRIA: 943 76 21 45.

AGOITZ

tapiz
denda

Leizariako
San Lorentzo, 25
BERGARA
Tel.: 649 112 675

CLINICA DENTAL

BERGARA

Odontologia helduendako eta umeendako
Hortz-protesia
Estetika eta zuritzea
Implanteak eta kirurgia
Umeendako tratamendua, prebentzioa eta ortodontzia

Aseguruak: Ipresa, Sanitas, Asisa, DKW/Previasa, Aegón, Guía Azul de Guipúzcoa eta Dentyred.

Bidekurutzeta 6, 2. pisua. Bergara. 943 76 05 77

DESKONTU BEREZIAK
zaharren etxeak, ezgaituak eta enpresak

MINGAINARITIRAKA



Roberto Rodríguez

ARANETA ENPRESAKO KOMERTZIALA

Enpresa Administrazio eta Kudeaketa ikasketak egin zituen Robertok Elgoibarko Gestio Eskolan, eta bi urte daramatza Aranetan, komertzial lanetan. Besteak beste, su-itzalguiluen berraztertzeaz arduratzen da Roberto. 27 urte dauzka.

Txikitan, zer izan nahi zenuen?

Sukaldari.

Ondo moldatzen zara sukaldean? Zure espezialitatea?

Saiatzen naiz, bai. Espezialitatea? Gazta-tarta esango nuke.

Norekin afalduko zenuke gustura? Eta non?

Julian Retegirekin, Portalonen, Gasteizen.

Zure laneko gauzarik onena eta txarra?

Onena, jende askorekin egoten naizela; eta txarra, pisu handia erabili behar dudala.

Denbora librean zer egitea gustatzen zaizu?

Mendira joan, lagunekin egon, parrandaxo bat egin noizean behin...

Inguruko mendi bat?

Txindoki.

Besteengan gehien estimatzen duzuna?

Adiskidetasuna eta egiazaletasuna.

Neska bati zeri botatzen diozu begia lehenengo?

Aurpegiari: barrea, begiak...

Egunkarian irakurtzen duzun lehen gauza?

Atzeko orrialdea.

Parrandarako toki bat?

Bilbo.

Zer egingo du Realak aurten?

Europarako sailkatu. Liga irabaztea gehiegizko ikusten dut.

Liburu bat/Film bat/Musika talde bat?

Tuparen seme-alabak (Jon Arretxe) / Tesis filma / AC/DC.

Ikusi duzun azken kontzertua?

Motorhead taldea, Jam aretoan. Ikaragarria izan zen.

Nork irabaziko du Lau t'erdiko txapelketa?

Barriolak.

Gabonetatik gehien atsegin duzuna? Eta gutxien?

Gehien, jai izatea; eta gutxien, itxurakeria handia egoten dela.

Gabonetako loterian sari potoloa irabaziz gero?

Autobus bat errentan hartuko nuke, eta nahi duena etor dadila...

Bidaia bat, nora?

Afrikara: Tanzania, Mozambique, Kenya... ezagutu nahi nituzke.

EDU MENDIBIL

BERGARARRAKMUNDUAN

MAIDER GANTXEGI

28 URTE / TOPOGROFOA / LEAMINGTON SPA (INGALATERRA)

“Zorte handia izan dut topografo lana topatzean, oso aberasgarria gertatzen ari da”

EDU MENDIBIL

Gasteizen Topografia Ingeniaritza Teknikoa ikasi zuen Mainerrek, eta gero, Andaluziara joan zen, Jaenera, Geodesia eta Kartografian Goi Mailako Ingeniaritza egitera: “Hango ikasketak bukatu ondoren, Ingalaterrara etortzea erabaki nuen, lana topatzeko orduan ingelesak duen garrantziaz ohartuta. Joan den urtean, irailean, etorri nintzen Leamington Spa izeneko herrira. 50.000 biztanle inguruko herria da, Birminghamdik 40 bat kilometrorra dago eta nahiko lasaia da. Bitxikeria moduan, Shakespeare idazle ospetsua jaio zeneko ingurunea da hau”.

Esan bezala, urtebete pasatxo darama Ingalaterran Mainerrek. Hasieran, pub baten izan zen lanean, sukaldari, eta handik gutxira topografo lana topatu zuen: “Lancasterko ingurumen azterketa egitea agindu ziguten. Hortaz, hara joan ginen, iparraldera. Topografia eta batimetria (erreka zein itsasoko mapak egitea) lanak egin nituen han, eta enpresak alokatutako etxe baten bizi izan nintzen, beste lau lankiderek batera. Lana oso interesgarria zen, baina, aldi berean, oso gogorra. Lankideekin bizi izateak hori dakar, alegia, ez dagoela bukatzeko ordurik. Aste bukaera batzuetan Leamingtonera bueltatzen nintzen, bertako mutil batekin irte-ten ari naiz eta, Ian. Leire Altunarekin ere askotan egoten naiz. Zortzi hilabe-

“Hemengo gauza txar bat ordutegia da: dendak goiz ixten dituzte, eta ez dago kaleko girorik”

te eman genituen Lancasterren, eta orain, berriz, Leamingtonen nago. Enpresa hemengoa da eta beraiekin jarraitzen dut”.

Lana topatzerako orduan zor-tea izan duela dio Mainerrek: “Topografo izanda ez da erraza batimetriak egiteko lana aurkitzea. Besteak beste, itsasoko mapak egiten ditugu, eta horretarako enpresak itsasontzi bat dauka. Erabiltzen ditugun instrumentuak niretako berriak ziren, eta denetik ikasi dut; alde horretatik, behintzat, oso aberasgarria gertatzen ari da. Ez neukan esperientziarik itsasontzian ibiltzen, eta guztiz erakar-garria da; gustura ari naiz”.

Leamington Span beste neska batekin batera bizi da: “Orain, behintzat, ez naiz lankideekin

bizi; eta hobeto horrela. Herria ondo dago, denetik dago eta, aldi berean, herri lasaia da. Lanetik aparte, kirola egitea gustuko dut, eta ingeles eskolak ere hartzen ditut astean barrena. Aste buka-eretan, berriz, normalean, Ianen lagunekin irteten naiz, trago batzuk hartzeko, eta giro ederra egoten da gauean. Hala ere, hemengo gauza txar bat ordutegia da: arratsaldeko bost eta erdie-tarako denda guztiak ixten dituz-te, eta ez da inor ikusten kalean. Bizimodua etxean egiten dute hemen. Hori da faltan sumatzen dudana, kaleko giroa”.

Oraindik ere ingelesarekin nahi bezala ez dela moldatzen diosku Mainerrek: “Batzuetan, nekeza egiten zait. Lanean ondo moldatzen naiz, hizkuntza tek-nikoa errazagoa delako azken baten. Edozelan ere, zenbaitetan, ingelesekin kalean jardutea kos-tatu egiten zait”.

Gabonetan Bergarara etor-tzeko irrikan dago Maider: “Nire anaia Mikel ere Mexikotik eto-rriko da Gabonetan, eta orain-dik ez dut ezagutzen euren ala-batxoa. Gurasoek ere ez dute ezagutzen, Mexikon jaio zelako; hori dela eta, pozgarria izango da denok berriro elkartzea. Izan ere, familia faltan suma-tzen dut, batez ere, anaia gaztea, Josu. Astero berba egiten dut eurekin, telefo-noz. Bestetik, lagunak ikusteko eta euska-raz berba egiteko gogoia daukat, irai-la ezker ez naiz-eta lagunekin egon”.



Bideluze

ARROPA GARBITEGIA

Laneko arropa
Mantelak
Mantak
Edredoiak
Alfonbrak
Moketak
Gortinak

Arropa
konpontzen
dugu

Bordatuak
egiten
ditugu

AMILLAGA 26
POSTA KUTXA 82
BERGARA
TEL.: 943 764 943
FAXA: 943 769 708

Aldoka
Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi
BERGARA

INFERNUKUA
TABERNA

Masterreka 23. BERGARA. 943 76 18 49

IGERIKETA

Bergara Igeri Elkartekoak Legazpin eta Arrasaten entrenatzen ari dira urria ezkerro

Joan den urteko denboralditik 15 igerilarik utzi dute taldea. 1986tik 1992ra bitartean jaiotako 34 lagun ari dira aurten

EDU MENDIBIL

Zalantza barik, Igeri Elkartea dugu kaltetuenetako bat Agorrosingo igerilekuen itxiera dela-eta. Bergaran entrenatze-ko aukerarik ez daukatenez, Arrasatera eta Legazpira joan behar izaten dute, aste barruan, autobusez.


Astelehenetan, martitzenetan eta egubakoitzetan Arrasateko Musakolako kiroldegian entrenatzen dira igerilari bergararrak eta martitzenetan eta eguenetan, aldiz, Legazpin. Horrez gain, aste barruan, goizeko sei eta erdietan, Oñatin entrenatzen dira Neritzel Albisua, Ana Balentziaga eta Olatz Fernández. Berez igeriketa kirol gogorra bada, are gehiago horrelako baldintzetan.

Amaia Andueza oñatiarra (24 urte) dugu hirugarren urtez Igeri Elkarteko entrenatzailea. Aurten, 1986tik 1992ra bitartean jaiotako 34 igerilari dira taldean. Joan den denboralditik 15ek utzi

dute taldea: "Gutxi dira, igerilekuarekin izan dugun arazoa zelakoa izan den kontuan hartuta", Anduezen ustez. Oso baldintza eskasetan entrenatzen direla dio Anduezak: "Sakrifizio handia da autobusa hartzea eta beste herri baten entrenatu behar izatea. Gainera, Arrasaten gertatzen den moduan, kale bakar baten 17 lagun batera aritzea ez da eroso, kontuan hartuta adin askotari-koak elkartzen direla. Bergaran bi kalerekin oker ibiltzen baginen, pentsatu bakarrarekin...".

Esan bezala, urrian ekin zioten Bergararik kanpo entrena-tzeari, eta otsail aldera Agorrosingo kanpoko igerilekuan entrena-tzen hasteko itzaropena dute.

GIPUZKOAKO TXAPELKETA ASTEBURUAN Zapatuan eta domekan, Gipuzkoako Txapelketa Absolutua jokatuko da Zarautzen. Bergara Igeri Elkartea ordezkatzuz, Neritzel Albisua, Goiatz Pérez, Maite Urtzelai, Maria Galarraga eta Nerea Anduaga izango dira han.



Gipuzkoako Ligan ari den Bergara Igeri Elkarteko aurtengo taldea.

Leire Lasa gimnastak zilarrezko domina irabazi zuen Murtzian

E.M.

Leire Lasak zilarrezko domina irabazi zuen Ipurua taldearekin, aste bukaeran, Murtzian, Espainiako Gimnasia Erritmiko Txapelketan. Sarai Gallego, bestalde, 27. postuan sailkatu zen infantil taldearekin.

Leire Lasarekin batera, Miriam Merino, Lorea Palacios, Ylenia López eta Jaione Tejedor aritu ziren senior mailako taldekako txapelketan. Eibarko taldea faboritoen artean zegoen txapelketa jokatu aurretik, eta horixe baieztatu zuten Murtzian. Sailkapen orokorrean bigarrenak izan ziren, eta finalean ere postu bera lortu zuen Susana Prietok zuzendutako boskoteak. Senior mailan Espainiako Estatuko hamar talderik onenak aritu ziren lehian.

Leire Lasa 1998a ezkerro ari da Eibarko Ipurua taldean, eta aurten, denboraldi biribila burutu dute; izan ere, Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketak irabazi zituzten aurretik, eta Euskal Ligan ere lehenak izan dira.

INFANTIL TALDEA, 27. POSTUAN

Sarai Gallegok ere hartu zuen parte Espainiako Txapelketan, infantil mailan. Maila horretako bi talde eraman zituen Ipurua Murtziara. Horietako bat zortzigarren postuan sailkatu zen eta Sarai Gallegorena, aldiz, 27.a izan zen. Guztira, 40 talde izan ziren lehian. Sarairen taldekideak honako hauek dituzue: Lorea Martín, Nerea Olano, Maider Amat eta Amaia Agirre. Vanesa Cardeñosaren taldeak ez zuen bere maila onena azaltzerik izan Murtzian izandako txapelketan.



Leire Lasa bergararra (behean, ezkerrean), Ipurua taldekideekin.

PALA

Pala Txapelketako finala, zapatuan, Angiozarren

Mallabiko Iñigo eta Ismael Praderak, batetik, eta David López eta Gaizka Okariz ermuarrak, bestetik, jokatuko dute Pala Txapelketako finala bihar, zapatua, Angiozarren, 17:00etan. Aurretik, 3. eta 4. postuak erabakiko dira. MuruaMendiarez-Acedo eta Tueros-Urain bikoteen arteko lehian.

PALA ETA TENISA

Frontoiak edo tenis pistarako eskaera epea zabalik

Datorren urtean frontoietan edo tenis pistan ordua hartzeko interesa dutenek Kirol Zerbitzuan bete beharko dute eskaera orria abenduaren 31 baino lehen. Argibideak 943 77 91 67 telefonoan.

EH HUTS EGIN KIROLA OPARITU

SPORTLAND
SPORTLAND ARRASATE. Garibai Etorbidea, 2-6 Gipuzkoa

Eskubaloia eta saskibaloia partiduak aste bukaeran

E.M.

Senior mutilen eskubaloia taldeak ligako hirugarren partidua irabazi nahi du bihar, zapatua, Egiaren aurka. Bestalde, senior saskibaloia taldeak Ordizia hartuko du bihar ere, Labegarrietan.

Lehen itzulera amaitzeko hiru partidu besterik ez zaio falta senior mutilen eskubaloia taldeari. Orain arte bi partidu bakarrik irabazi dituzte Edu Orgazen mutilek, Ormaiztegin eta Sestaoren aurka Bergaran jokatuak, hain zuzen ere. Bi garaipen horiek jarraian izan ziren, eta horien ondoren, azken jardunaldian, UPV taldearen aurka galdu egin zuten, Gasteizen. Bihar, hortaz, partidu garrantzitsua izango dute, Egiaren aurka, 17:15ean.

Jose txo Muniategik zuzentzen duen gazte taldea hobeto ari da, hirugarren postuan dago eta sailkapenean. Jokatuak bederatzi partiduetatik zazpitan irabazle izan dira eta beste biak galdu egin dituzte mahoneroek. Domekan, Ormaiztegi taldearen bisita izango dute, 12:00etan. Etxekoak ditugu partidua irabazteko faborito.

BI SASKIBALOI PARTIDU

Bestalde, bi saskibaloia partidu izango dira, zapatuan, Labegarrietako kiroldegian: kadete mailako taldeak Intxaurrendoren aurka jokatu du, 12:00etan. Bi taldeak bosgarren postua eskuratzeko lehian dira; bestalde, senior taldeak Ordizia hartuko du, 19:15ean. Ramon Conderen mutilek ez dute aurkari erraza izango bihar, zapatua.



ARTXIBOA

Senior mutilen taldeak bi partidu irabazi ditu orain arte.



ARTXIBOA

Argazkian, iaz Euskal Ligara igo zen taldea. Bergarrek hil edo biziko partidua dute bihar.

FUTBOLA

Gazte taldeak San Marcial hartuko du, bihar, zapatua, Agorrosinen

E.M.

Euskal Ligan ari den Bergara KEko gazte taldeak San Marcial irundarren bisita izango du, bihar, Agorrosinen, 15:30ean. Aurreko jardunaldian 2-0 galdu zuten mahoneroek Union Txikiren aurka.

Fernando eta Javi Oregi anaiek zuzentzen duten taldeak derri gorrezkoa du bihar irabaztea, San Marcial mahoneroen aurretik dago eta sailkapenean; hiru

puntura, hain zuzen ere. Bergararak bederatzigarren postuan dira: lau partidu irabazi dituzte, beste lau berdindu eta bost galdu. Biharkoaren ondoren, lehen itzulerako azken partidua urtarilaren 5ean jokatu dute, Gasteizen, Ariznavarra taldearen aurka, hain zuzen.

Tartean, Gabonetako Gazte Mailako Txapelketa jokatu dute: abenduaren 26an, Abadiñoren aurka neurtuko dituzte indarrak, eta irabaztekotan, Real eta Eibar taldeen arteko irabaz-

learen aurka izango dute finala, abenduaren 28an. Bergararako gazte taldearekin jarraituz, esan, Ander Sesma atezaina deitu duela Realak proba batzuk egiteko.

BIGARREN ERREGIONALA, ETXEAN

Bigarren erregionaleko taldeak Gazteak taldea izango du bisitari, zapatuan, Ipintzan, 17:30ean. Domekan, beste bi partidu izango dira: lehen mailako kadeteek Orioko hartuko dute (11:30ean) eta 2. mailako kadeteek Urola hartuko dute (16:00etan).

LABEGARAIETAKO FUTBITOXAPELKETA

ASTE BUKAERAKO PARTIDUAK

DOMEKAN, BARRUAN

09:30: A Ze Flaxa-Etengabe. De Ore

10:30: De Ore-Bildurbarek. Etengabe

16:00: Fac-Bar Canalejas. Errotagain

17:00: Bar Ganbara-Errotagain. Getokuak

18:00: Torrekua-Getokuak. Aterpe

19:00: Aterpe-Pagomendi. Las p. de Satan

20:00: K.Piperrak-Las p. de Sat. Pagomendi

ZAPATUAN, BARRUAN

09:30: Belengua-Mongatxurak. La Quinta

10:30: Argandolas-La Quinta. Belengua

Arbizu eta Leiza aurrez aurre Lau t'erdiko finalean bihar, Bergaran

E.M.

Bihar, zapatua, profesional mailako partiduak izango dira Udal Pilotalekuan, 16:15ean hasita. Lehenbizi, bigarren mailako Lau t'erdiko Txapelketako finala jokatu da: Arbizu eta Leiza izango dira aurrez aurre; partidu horren

ondoren, Berasaluze VIII.ak eta Errastik Bengoetxea VI.a eta Pascual izango dituzte aurrean. T5 telebista kateko *Fronton* saioak zuzenean eskainiko du partidu hori; eta, azkenik, jaialdia amaitzeko, Nagore-Armendariz eta Tirapu-Otxandorena izango dira aurrez aurre.

PARTIDUAK DOMEKA GOIZEAN

Bestalde, domeka goizean, Gabonetako txapelketako partiduak izango dira Udal Pilotalekuan, 10:45ean hasita. Ondoren, 12:45ean, Gipuzkoako txapelketaren barruan, infantil mailako bikoteek Eskoriatza eta Aloña Mendiren aurka jokatu dute.


IRURAK MARGOAK
DISEINUAK, S.L.

Era guztietako lanak
Moketa eta sintasola
Iztuku esponjatua

Paper pintatuak
Harea zorrotada
Iztuku faltsua


Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara

Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32



**JAUJA
KIROLAK**

Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95



Ur-bide
ITURGINTZA

Zubieta, 28-behea. BERGARA. 943 76 00 57. 630 261 617

EUSKARA/ Arrasateko Euskara Elkarteak sortutako ikuskizuna da, eta Jardun Euskara Elkarteak ekarriko du herrira etzi

Tren Literarioa ikuskizunak musika, hitzak eta irudiak batuko ditu Zabalotegi aretoan

MONIKA BELASTEGI

Jardun euskara Elkarteak Tren Literarioa ikuskizuna ekarriko du herrira; hainbat geltokitan geldialdia egiten duen trena da hori, eta geldione bakoitzean, bertso, olerki edo ipuin bat entzuteko aukera eskaintzen du. Ikuskizuna domekan izango da, 18:30ean, Zabalotegin.

Arrasateko Euskara Elkarteak, AEDk, martxan jarritako ikuskizuna da Tren Literarioa. Euskara elkarte horrek antolatzen duen Arrasate Lehiaketak literatura sariketaren 15. urteurrena ospatzeko antolatutako ekitaldia da, hain justu ere.


Tren Literarioak ipuina, poesia eta bertso paperak ditu oinarrian. Gainera, ikuskizunean entzungo den ipuin, poesia edo bertso horietako bakoitza, Arrasate Lehiaketak literatura sariketaren irabazle suertatutakoak dira.

Tren Literarioak ibilbide imaginario bati ekingo dio domekan, Zabalotegi aretoan. Ibilbide horretan egingo duen geldialdi bakoitzeko poesia bat, ipuin bat edo bertso bat entzuteko aukera egongo da. Horietako bakoitza, irudi eta musikarekin lagunduta, gainera.

Lehen aldia da Tren Literarioa Arrasatekan kanpora egiten dutena. Jardun Euskara Elkarteak hala eskatuta egingo dute emanaldia Bergaran.

AMODIOZKO GUTUNEN LEHIAKETA

Bestalde, Jardun elkarteak kale-ratu ditu dagoeneko, Amodiozko Gutunen Lehiaketan parte hartzeko oinarriak, eta Gabonen ostean amaituko da lanak aurkezteko epea, urtarrilaren 8an, hain justu ere.



Tren Literarioak ipuina, poesia, bertsoak, irudiak eta musika uztartzen ditu.

Trenak egingo duen geldialdi bakoitzeko ipuin, poesia edo bertso bat entzuteko aukera egongo da

Geldiune bakoitzean entzungo diren istorioak irudiekin eta musikarekin lagunduta daude

Amodiozko Gutunen XI. Berrigara Lehiaketan 1988an edo lehenago jaiotako edozeinek har dezake parte. Lanak jatorrizkoak, argitaragabeak eta euskaraz izan beharko dira, eta gutun forma izan beharko dute. Bestalde, eskuz zein makinaz idatzita aurkeztu ahal izango dira eta ezin izango dira bi orrialde baino luzeago izan. Lanean ez da egilearen daturik jarriko, lelo bat baizik. Egilearen datuak gutun-azal itxi baten sartu, eta gutun-azal horren azalean lanean jarri den lelo bera jarri beharko da. Lana (orijinala eta hiru kopia) eta egilearen datuak dituen gutun-azala beste gutun-azal handiago baten sartu eta honako helbidera bidali beharko da: Amodiozko Gutunen XI. Berrigara Lehiaketa, Jardun Elkarte, Errotalde jauregia.

E-postaz ere bidal daiteke lana, eta, kasu horretan, gutuna fitxategi baten bidali beharko da, *Gutuna* izenarekin, eta egilearen datuak *Egilea* izena duen beste fitxategi baten. Helbidea honakoa da: jardun@topagunea.com.

Lanak aurkezteko azken eguna urtarrilaren 8a izango da, eta sari banaketa, otsailaren 14an, San Balentin Egunean. Lau sari izango dira: lehenengo bi gutun onenak, Bergarako Onena eta Irakurle Gazteen saria.

SAKELAKO TELEFONO BIDEZKO MEZUAK

Horixe da aurtengo lehiaketaren berritasuna. Sakelako Telefono Bidezko Maitasun Mezuen Lehiaketa, alegia. Parte hartzaile bakoitzak ezin izango du mezu bat baino gehiago bidali, eta mezuaren ostean sakelako telefonoaren zenbakia eta adina jarri beharko dira. Mezuak jasotzeko epea: urtarrilaren 1etik 15era izango da, honako zenbakietan: 652729435 edo 605712469.

Hamabostaldiko azken ekitaldiak

Bergarako Herri Mugimenduen Hamabostaldiaren barruan Palestinaren gaineko erakusketa dago ikusgai kultura etxean. Horrekin batera, torturaren gaineko erakusketa ere ikus daiteke gaztetxean. Biak hilaren 15era arte egongo dira ikusgai. Bestalde, Kubako ipuinak egongo dira gaur, egubakoitza, 22:30ean, gaztetxean. Bihar, bazkaria izango da eta 22:30ean, kontzertua, Uko eta Jihad taldeekin. Domekan, gaztainak eta txokolata egongo dira, 18:00etan, San Martin plazan./M.B.

KULTURAPILULAK

Gabonetako kontzerturako sarrerak salgai

Dagoeneko salgai daude datorren zapatuan, hilak 21, herriko hainbat taldek egingo duten Gabonetako kontzerturako sarrerak. Aurrez honako tokietan eros daitezke: kultura etxean, Musika Eskolan eta Lazkano zapata dendan. Egunean leihatilari ere jarriko dituzte salgai. Nagusien-dako prezioa 6 euro da eta 26 urtetik beherakoendako, 4,5.

Asteburuan egingo du orkestrak 'Los Gavilanes' Arrasaten

Bergarako Orkestra Sinfonikoak (Orkestrako hogeita bost kidek) Arrasateko Izaskun Murgia Elkarte Lirikoarekin batera *Los Gavilanes* zarzuela egingo du gaur (egubakoitza), bihar eta etzi, Arrasateko Amaia Udal Antzokian. Hiru emanaldiak 19:30ean izango dira, eta sarrerak Guria tabernan daude salgai.

Musika Eskolaren kontzertua, gaur, Udal Pilotalekuan

Udazken Kulturalaren barruan egingo du emanaldia gaur, egubakoitza, Musika Eskolak. 19:00etan izango da emanaldia, Udal Pilotalekuan, eta Musika Eskolako honako taldeak arituko dira: Hari Txiki Taldea, Hari Taldea, Akordeoi Orkestra, Gazte Banda eta Orkestra Sinfonikoa, hain zuzen ere.

'Oliver' musikala Bilbon ikusteko sarrerak salgai

Bergarako Orfeoak urtarrilaren 2an, 3an, 4an eta 5ean Bilboko Euskalduna jauregian eskainiko duen *Oliver* musikala ikusteko sarrerak salgai daude, dagoeneko.

Ikuskizun bakoitzerako sarrerak eskuratzeko 944310310 telefonora deitu daitezke edota BBKn ere eskura daitezke.

Idoia Elexpururen olio erakusketa Nahikari tabernan

Idoia Elexpuru margolari aretxabaletarraren erakusketa dago ikusgai Nahikari tabernan. Erakusketan hamahiru olio jarri ditu ikusgai Aretxabaletako margolariak, eta abenduaren amaiera arte egongo da zabalik.



E, TXO!

ASKE BIZI TALDEAREN LEHIAKETA DEIALDIA

Azpeitiko Aske Bizi taldeak lehiaketa bitxi baterako deialdia egin du. Gai soziala duten obrak nahi dituzte talde horretako kideek. Liburu baten sar daitekeen edozein gauza nahi dute, baina kritika, hausnarketa edo salaketa bat izan dadila idatzitako hori. Saria honakoa izango da: idatzitako hori liburu baten argitaratua izatea.

Lehiaketa horretan parte hartu nahi izanez gero, abenduaren 15a baino lehen honako helbide hauetako batera bidali behar duzue lana: puzlea@mixmail.com posta elektronikora edo Aske Biziren Azpeitiko 263. posta-kutxara.

IPIIN ETA KONTAKIZUN LABURREN LEHIAKETA

Gasteizko Udalak Ipuin eta Kontakizun Laburren Lehiaketa antolatu du. Fikziozko kontakizunak aurkeztu beharko dira, abenduaren 20a baino lehen, Gasteizko Udalak Espainia plazan duen Argibide eta Erregistro Bulegoan.

DUINA PLATAFORMAREN AZTERKETA

Duina Plataformak hainbat gazte mugimendu batzen ditu. Martxoan helburu bat jarri zion plataforma horrek bere buruari: euskal gazteen eta lan-baldintzen gaineko azterketa egitea. Joan zen astelehenean egindako prentsaurrekoan azaldu zuten azterketa horren emaitzak jasotzen dituen liburua urtarrilean argitara emango dutela. Liburuxka argitara eman aurretik, baina, hainbat gizarte eta politika eragileri azterketaren emaitzak aurkeztuko dizkiete.

GUREGAIK/ JOKO BERRIAZ

'Magic Rol' joko berrira zaletu da hainbat gazte

AINTZANE IRIZAR

Azkenaldian, gazte ugari ikusi ditugu karta berezi batzuk esku artean dituztela. Karta horiekin *Magic Rol* deritzon jokoan aritzen dira, eta jokalariek batek besteari karta ugari irabaz diezazkioke.

Badirudi gaur egun gaztetxoak -eta ez hain gaztetxoak- ez direla edozein jokorekin konformatzen. Boladan dagoen azken jokotako bat *Magic Rol* dugu. Duela gutxira arte, Bergarako eta inguruko herrietako gazteek hiriburuetara joan behar izaten zuten karta horiek erostera. Orain, baina, Arrasaten ere eros ditzakete *Magic Rol* kartak. Eta Arrasate-

ko horixe da, gainera, ibarreko saltoki bakarra.

Fantasiatzko irudiak dituzte joko horretako kartek, eta oihartzun handia izan dute eta ari dira izaten, esan bezala. Baina ez pentsa batere merkeak direnik, ezta gutxiagorik ere. Karta-poltsa bakoitza (hamabost karta, guztira) lau eurotan dago salgai; eta kontuan hartu behar dugu jokatutako ahal izateko, gutxienez, hirurogei karta behar izaten direla.

Edozelan ere, esan bezala, boladan dagoen jokoa da, eta gero eta zale gehiago ditu *Magic Rol* delakoak. Orain dela bi aste, esate baterako, zapatu goizetik hasi eta iluntzera arte *Magic Rol* jokoa aritu ziren, Arrasaten, hogeigazte baino gehiago.



Fantasiatzko irudiak dituzte *Magic Rol* jokoko kartek.

IKER BARANDIARAN

LOTSABARIK/ Marlene De la Cruz

"Partidua galtzeak amorratu egiten nau"

AINTZANE IRIZAR

Neska alaia dugu Marlene; alaia, baina burugogor samarra. Txikitan modelo izan nahi zuen, eta ez du, behintzat, horretarako estilori falta; hori erakutsi digu argazkiak ateratzeko orduan.

• Txikitan, zer izan nahi zenuen?

Modelo edo irakasle. *Barbie* oso gustuko nuen, eta horrelakoa izan nahi nuen. Baina irakasle ere izan nahi nuen.

• Hemendik 20 urtera zelan ikusten duzu zeure burua?

Espero dut mediku izatea, ezkonduta egotea eta, jakina,

seme-alabak edukitzea.

• Gurasoek zer errepikatzen dizute behin eta berriro?

Ikasteko; aukera daukadanez, aprobetxatzeko esaten didate.

• Gurasoen kontrolpetik ihes egiteko taktika bat.

Ez daukat taktikarik, eta beharrik ere ez daukat, ez naiz-eta kontrolatuta sentitzen.

• Bizitzan zeri ematen diozu lehenetasuna?

Familiari eta lagunei.

• Zure bertute bat?

Oso alaia naiz.

• Eta hutsune bat?

Oso burugogorra naiz; edozein gauzatan, zerbait buruan sartzen baldin bazait, hura lortu arte ez dut etsitzen.

• Zerk amorratzen zaitu?

Partidu bat galtzeak: bai Realak, bai gure taldeak...

• Zure gorputzeko atalik gustukoena?

Haginak.

• Jendeari, zeri botatzen diozu begia lehenengo?


Lehenengo, fisikoari, gorputzari orokorrean, eta, batez ere, ipurdiari.

• Zer egiten duzu seduzitzeko?

Naizen modukoa izan; ez dut ezer berezirik egiten. Egia da dantza egiterakoan, esaterako, beti hurbiltzen dela norbait, baina ez dut ezer egiten seduzitzeko.

• Fantasia sexual bat. Zeinekin eta non?

Ez dut fantasiarik.



ADINA: 15 urte • IKASKETAK: DBHko laugarren maila • ZALETASUNAK: Futbola • LIBURU BAT: 'Con los ojos cerrados', Federigo Tozzirena • FILM BAT: 'Yo soy Sam' • MUSIKA TALDEA: Mana • KIROL TALDEA: Real

TIRABIRAKA/ Oihan Vega



ZAHARREN ETXETIK

San Joxepeko abesbatzak Gipuzkoako Topaketan hartuko du parte, eguaztenean, Legazpin

EDU MENDIBIL

San Joxepeko abesbatzak Gipuzkoako Erretiratuen Abesbatzen Topaketan hartuko du parte, eguaztenean, hilaren 18an, Legazpin. Gipuzkoako hamabiat abesbatza batuko dira topaketa horren hirugarren aldian.

San Joxepeko abesbatzak aurreko bi aldietan ere parte hartu du, iaz Zumaian eta orain dela bi urte Lasarten. Eguaztenean, Gipuzkoako 12 abesbatza batuko dira Legazpiko zinema aretoan. Erretiratuen abesbatzek elkar ezagutu eta bakoitzaren maila neurtzeko egun aproposa izaten da. Topaketa 17:00etan hasiko da, eta talde bakoitzak hainbat pieza eskainiko ditu. San Joxepeko abesbatzak lau pieza abestuko ditu: *Mukhale ndi moyo* (mozanbikearra), *Jeiki-jeiki* (herrikoia), *Elurra mara-mara* (Jaroff-ena) eta *Goxo-goxo* Gabon kanta.

HAMAR URTEKO IBILBIDEA

San Joxepeko abesbatza orain dela 10 urte sortu zen, 1992an, azaroan, hain zuzen. Eta hiru zuzendari izan ditu taldeak:



San Joxepeko abesbatzan 50 lagun ari dira. Argazkian, iazko topaketan, Zumaian, eskainitako saioaren irudia.

Ines Elortza, On Nikomedes Larrañaga zena eta Jose Patxi Azkarate.

Jose Patxi Azkaratek bi urte daramatza taldea zuzentzen. Gaur

egun, 50 bat lagun ari dira taldean, emakumezkoak zein gizonezkoak, eta astean behin entseatzten dute, martitzenen arratsaldeetan, 17:30ean.

Azkaratek zera esan digu: "Guztiekin jartzen duten gogoia, ilusioa eta umorea nabarmenduko nuke. Sekulako giroa dago taldean, eta hori da gauzarik onena".

LABUR

Gabonetako txapelketak San Joxepen

Datorren astean, hainbat txapelketa jokatuko dira San Joxepen: astelehenean, tutokoa izango da, martitzenean, musekoa (zortzi erregerekin) eta eguaztenean, briska eta billar txapelketak jokatu dira. Denak ere 16:00etan hasiko dira. Hilaren 19an, eguenean, berriz, sari banaketa eta opariaren zozketa egingo dituzte, 17.00etan. Bazkideei parte hartzeko dei egin dute.

Txistorra-jana, hilaren 20an, San Joxepe elkarte

Santo Tomas Eguna ospatzeko eta Gabonei ongietorria emateko, txistorra-jana izango da San Joxepe erretiratuen elkarte datorren egubakoitzean, hilaren 20an, 17:00etan. Txistorraz eta edariez gain, dantaldia ere izango da.

Bestalde, eguenean, hilaren 19an, Gabonetako saskia zozketatuko dute, 17:30ean. Gabonetako loteria erosi zuten artean harreraren dagoen saski ederra zozketatuko dute.

OPARITZEKO IDEIAK

MULTIOPTICAS

GABONETAN

35,75

salneurria 47,50

Ardoentzako termometroa:
Ardo neurgailuak

GABONETAN

42,00

salneurria 57,00

Proiektzioko erlojua:
Ordua goian proiektatzen du, barruko tenperatura, erlojua irati-kontrolpean, alarma.

GABONETAN

71,50

salneurria 101,00

THB:
Termometroa, Higrometroa eta Barometroa

GABONETAN

26,00

salneurria 33,00

PACK-a:
Bisera eta Pegatina

GABONETAN

50,00

salneurria 81,00

Dijital Estazioa:
Termometroa (barruko eta kanpoko giroa), kaberik gabe, tenperatura memoria (gutxien eta handiena), erlojua

GABONETAN

14,40

salneurria 20,45

Iparrorratza:
Metalezko kutxatila, balazta eta esfera argitsuarekin

BERGARA
Tel. 943 76 15 75

ARRASATE
Tel. 943 79 29 95

ORDIZIA
Tel. 943 88 99 88

EIBAR
Tel. 943 20 05 22

ERRETERIA
Tel. 943 51 75 11

ZORIONAK 2003

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

Nork pintatu zuen 1979 eta 1985 artean
Alzasu elkarteko mural hau?

GALDEDEBALDE

1. Nola du izena Bergarako Orkestrak aste bukaeran Arrasaten egingo duen zarzuela?
A/ Los Gavilanes.
B/ Oliver!.
C/ La Mision.
2. Zein da San Joxepe elkarteko abesbatzako zuzendaria gaur egun?
A/ Jose Patxi Azkarate.
B/ Ines Elortza.
C/ David Azurza.
3. Bergara Igeri Elkarteko entrenatzailea oñatiarra da. Zein da bera?
A/ Amaia Andueza.
B/ Gorka Zelaia.
C/ Neritzel Albusua.

PINTOREBERGARARRAK GAUR

Mikel Araiztegi

E.M.

Mikel Araiztegi (Bergara, 1955) pintura figuratiboa egiten du, nagusiki, eta bere lanek espresionismo ukitua dutela dio: "Paisaiak eta txokoak margotzen ditut, baita natura hilak ere. Estilo konkretu bat baino gehiago, orokorrean, pintura gustatzen zait. Lan abstraktuak ez ditut hain gustuko, eta zenbaitetan abstraktuarekin talke egin arren, minimalismoa atsegin dut; gauza gutxirekin zerbait azaltzeko ahalmen hori miresten dut".

Pinturarekiko zaletasuna aire libreko lehiaketengatik datorkiola dio. Mikelek ere horrelakoetan hartzen du parte, maiatzetik irailera, batez ere. Altuna Akizurekin ikasten ari da, eta pinturan etengabe hobetu nahi du: "Lan baten guztiari ematen diot lehentasuna, materialetatik hasi eta emaitzaraino. Lan harmoniatsua eta estetikoa sortzea da helburua; alegia, lanak zerbait adieraztea".

Besteak beste, Zezenzaleak deitutako Abdon Juaristi Lehiaketa saria irabazi du, eta datorren urtean, erakusketa egiteko asmoa dauka Eibarren. Bi urte barru Bergaran egin nahiko luke erakusketa.

"Lan harmoniatsiak eta estetikoak sortzea da nire helburua; lanak zerbait adieraztea"



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

IRUNE ZANGITUrendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Irune! Galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: Goenkalen, Trinidadeko komentuan / Galde debalde: 1-A, 2-C, 3-C.



BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Tunacor legatz-kokotxak

500 gr.ko kaxa

6,29 €

1.047 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



E.M.

OGIZUN
koop. elk.
okindegia



San Pedro 21
BERGARA
943 76 20 49

Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53

Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13

ile
apaindegia

edertze gela

disdira

Masterreka, 7. BERGARA
Tf. 943 76 00 55

EDEL
TAPIZDENDA

Etzerako artikuluetan aukerarik haundiena

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak,
koltxak, edredoiak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA



BERGARA
Irati Cuevas
Abenduaren 13an
13 urte. Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Jon Arrillaga
Abenduaren 13an
13 urte. Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Paulo Garitano
Abenduaren 13an 5 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta Oier.



BERGARA
Garazi Ibarra
Abenduaren 16an 4 urte.
Zorionak! Etxekoak,
bereziki Unai eta Oihana.



BERGARA
Sara Landa
Abenduaren 18an
urtebete. Zorionak!
Etxekoak, bereziki Beñat.



BERGARA
Lander Bretaña
Abenduaren 13an
11 urte. Urte askotarako!
Familiakoak.



BERGARA
Edu Gonzalez
Abenduaren 4an 27 urte.
Urte askotarako!
Koadrilakoak.



BERGARA
Iñaki Jaso
Abenduaren 10ean 27
urte. Urte askotarako!
Koadrilakoak.



BERGARA
Saioa Agirre
Abenduaren 9an 7 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



BERGARA
Txomin Larrañaga
Abenduaren 11n 7 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Gorane Polanco
Abenduaren 18an 3 urte.
Urte askotarako!
Aitaxo eta amatxo.



BERGARA
Julen Rodriguez
Abenduaren 13an
11 urte. Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Aitor Zengotitabengoa
Abenduaren 13an
8 urte. Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Jon Marzo
Abenduaren 14an 7 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Nerea.



BERGARA
Xabier Aldai
Abenduaren 17an 3 urte.
Urte askotarako!
Amatxo eta aitaxo.



BERGARA
Iker Aldai
Abenduaren 17an 3 urte.
Urte askotarako!
Amatxo eta aitaxo.



BERGARA
Iñaki Martinez
Abenduaren 14an
38 urte. Urte askotarako!
Maria eta Jaione.



BERGARA
Markel Muniategian-dikoetxea
18an 4 urte. Zorionak!
Ibon, aita eta ama.



BERGARA
Amaia Basterra
Abenduaren 14an 2 urte.
Zorionak! Etxekoak;
bereziki, Alazne ahizpa.



BERGARA
Xabier Ubera
13an 22 urte. Hi haiz
guretako txapelduna!
Zorionak! Lagunak.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak BERRIGARAREN bidez!
Ekar ezazu bere argazkia* eta emaiazu ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm.
Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu.
Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra-BERRIGARAREN agertu ondoren.
Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.

Adi! Argazkiak emateko lekua: **Bergara:** Berrigara, Irizar jauregia, Barrenkalea 33
Antzuola: Udal Liburutegia, astelehenetan 17:00etatik 19:00etara **Elgeta:** Erosle-Baltxongua



**AZAROAREN 29KO APATXIKO
ERANTZUN ZUZENAK:**

HASI DADILLA FUNTZIÑUA

1. da 2. lora 3. du 4. zapata 5. du
6. du 7. botak 8. kapa 9. du

TXIMIÑUEN MODUAN

1. Bixiguak bezalako begi haundixak dauzka Josetxok.
 2. Aingiren moduan egitten dabe aurrera traineruak.
 3. Esnia elurra bezalakua da, zuri-zurixa.
 4. Arraren moduan dago etxeko txakurra, gizen-gizen.
 5. Erbixak bezala antxintxika alde egin dabe lapurrak.
- Bigarren zatia: 1 B 2 A 3 C 4 E 5 D

AITA-AMEK EGITEKO ARIKETA

1. ~~Betiko bezala dabil.~~ / Beti bezala dabil.
2. Nik be zure moduan egingo dot. /
Nik be zure bezala egingo dot.
3. ~~Praka gorriak jantziko naiz.~~ /
Praka gorriak jantziko dittut.
4. Dotore-dotore jantziko gara. /
Dotore-dotore jantziko dugu.

**Zorionak
Itsaso eta Danel!**

Haiei egokitu zaizkie 'Apatxi'-ko 4. aleko lehen sariak!

Apatxiko laugarren aleko sariketan
Itsaso Mujika eta Danel Urzelaik irabazi dituzte bi sari nagusiak.
Itsasok eta Danelek *Kantuketan* CDaren ale bana eskuratu dute.



Horrez gain,
Joseba Elorza, Beñat Etxabe, Asier Kortabarria, Garikoitz Moreno eta Ane Aramendi
ikasleek *Ume txikiendako kantu eta jolasak*
liburuxka bana jasoko dute euren ikastetxeetan.

APATXI-REN HURRENGO ALEA, URTE BERRIAREKIN BATERA BERRIGARAN!
Beraz, adi egon! Bitartean, ondo pasa Gabonak!

Nagore Ferreiro eta Maite Nuñez,
diseinu eta koordinazio arduradunak.



Kaixo!



Jakinako lantalde berria gara.

Zure etxeko sukaldea eta bainugela ondo
berritu ditzazun lan egiten dugu.
Eta zeramikako azken berrikuntzak ere
eskaintzen dizkizugu.

Diseinua, kalitate/prezio erlazio bikaina eta
saldu osteko zerbitzu ezin hobea dira gure
ezaugarriak.

Gainera, gremio guztiak koordinatzen
ditugu.

Eta, orain, aukera berezia daukazu:
erakusketa aldatu behar dugulako, prezio
bereziak sukaldeetan eta bainugeletan.

Zain gauzkazu.
Jakina, zurekin pentsatzen.

JAKINA

BAINUGELAK • ZERAMIKA • SUKALDEAK

FAGOR 
Sukaldeko altzariak

AENOR 
Prestaketa
sistemak

6
URTEKO
GARANTIA

JAKINA
San Lorentzo Industri Pol.,
Amillaga 10. BERGARA.
Tel.: 943 76 03 30. Faxa: 943 76 02 91.

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2002ko abenduaren 13a / 138. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

Kontzertua eta azoka, gaztetxoek eskutik

AINTZANE IRIZAR

Abenduaren 17an, martitzena, Bergarako Musika Eskolan ikasten diharduten antzuolar gaztetxoek kontzertua izango dugu udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Eguenean, berriz, abenduak 19, Santo Tomas feria egingo dute Herri Eskolako neska-mutikoeak.


Gabonak gainean ditugu, eta hori nabari da datorren asteko herriko ekitaldien egitarauan.

Alde batetik, urtero moduan, Bergarako Musika Eskolan ikasten diharduten herriko neska-mutikoen kontzertua izango dugu. Abenduaren 17an, martitzena, izango da kontzertu hori, udaletxeko osoko bilkuren aretoan, 19:00etan.

Errepertorio zabala eskainiko digute, eta, normala denez, Gabonetako piezei emango diete lehentasuna.

Antzuolako hogoita bost bat ume ari dira Musika Eskolan ikasten, eta gehienek hartuko dute parte martitzeneko emanaldian: txikienetatik hasi eta 14 urtera arteko neska-mutikoeak, hain zuzen ere. Hainbat musika tresnarekin egingo dute kontzertua: soinua, klarineta, pianoa, eta abar.

Solfeoko lehen eta bigarren ikasturteetako eskolak Antzuolan bertan eskaintzen dituzte Bergarako Musika Eskolakoek. Hortik aurrera, baina, Bergarara joan behar izaten dute ikasleek.



IDOIA CONGET

Martitzen arratsaldean egingo dute kontzertua udaletxeko osoko bilkuren aretoan.

SANTO TOMAS FERIA

Eguenean, bestalde, hilak 19, Santo Tomas feria egingo dute Herri Ikastetxeko ikasleek. Eskola aurreko aldean egingo dute azoka, eguen arratsaldean. Eguraldi txarra egiten badu, eskolako patioan egingo dute.

Era guztietako produktuak eta animaliak ikusi ahal izango ditugu: ortuetako produktuak, frutak, etxean egindako gozoak...

Herri Ikastetxeko azoka hori, baina, ez da azoka arrunta

izaten: ez dute produkturik saltzen, ikusgai jartzen dituzte, besterik ez. Eta gero, lagun artean banatu edo jan egiten dituzte azokara eramandakoak.

Azokaren ostean, gurasoek prestatutako txokolatea eta txistorra jateko aukera izango dute neska-mutikoeak. Bestalde, seigarren ikasturtekoek antolatutako txerrikiaren zozketa ere eguen arratsaldean egingo dute.

Hilaren 20an, berriz, Gabonetako oporrak hartuko dituzte.



Argiñanoren ikasleak errotan

Argiñanok Zarautzen daukan Ostalaritza Eskolako ikasleak izan genituen herrian joan den astelehenean. Antiguako errota ikustera etorri ziren hogeit hamar ikasle, Eva Argiñano irakaslearekin batera. Florentino Lamariano Antiguako errota nagusiak eman zien ongiatorria, eta errota zelan funtzionatzen duen erakutsi zien. Harrituta geratu ziren ikasleak, baita Eva Argiñano bera ere; izan ere, errota bat martxan sekula ikusi barik zuela azaldu zigun Eva Argiñanok. /A.I.

LABUR

Antzuola inguruko mendietan ibilaldia egingo dute domekan, Arrolak antolatuta

Arrola mendi elkarteak ibilaldia antolatu du domekarako, abenduak 15. Goizeko bederatzietan irtengo dira, herriko plazatik, eta Aierdi baserrira abiatuko dira, automobilerik. Handik, Krabelinaitzera joango dira, oinez, eta Krabelinaitzetik Antzuolara jaitziko dira. Ibilbide horretan, Pagape iturrian plaka bat jarriko dute, iturri hura seinaleztatzeko. 12:00ak aldera izango da hori.

SUKALDEKO ALTZARIAK
Harizki

MUEBLES IGEA

Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan
espezializatuak

Zurrategi plaza 4, behea. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80

MUJKA HARATEGIA



**Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrek eta oilaskoak**

Kalebarren, 1.
ANTZUOLA
Tf. 943 76 64 34

AITZ-GARBI



Pintxoak eta kazuelatxoak.
Bazkariak eta afariak

Kalebarren 15. Tf. 943 78 70 51
ANTZUOLA

ELKARRIZKETA

GARBIÑE ARRIZABALAGA/GIPUZKOAKO GURASOEN FEDERAZIOKO KIDEA

“Jarrera kapritxosoak eragin ditzake umearengan jostailu gehiegi izateak”

A.I.
Atzo, eguena, egin zuen berbaldia Herri Ikastetxean Garbiñe, Baikara Gipuzkoako Gurasoen Federazioko kideak. Gabonak gainean ditugula-eta, jostailuen eta kontsumoaren gainean berba egin zuen.

Zelan aukera dezakegu umearendako jostailurik egokiena?

Jostailu bat aukeratzen dugunean, ez dugu denbora pasatzeko objektu bat bakarrik aukeratu; izan ere, jolasa umeen ikasketa prozesuaren oinarri da. Jolasaren bitartez, ingurunea aztertzen dute eta inguruan dituzten jarrerak ulertzen laguntzen die. Euren burua eta gizartea ezagutzen ere laguntzen die jolasak. Hori guztia hartu behar dugu kontuan.

Jostailuak aukeratzeko gomendio batzuk honakoak izan daitezke, besteak beste: umeen beharrian eta gustuen arabera izatea; ondo pasatzeko izatea; umeak balio batzuetan hezteko aukera ematea eta umeari jolasaren protagonista izaten laguntzea. Bestalde, kontuan izan behar dugu ez daudela nesken-dako eta mutilendako jostailuak.

Gabonetan, jostailuen iragarkiz bonbardatzen dituzte umeak. Zelan jokatu horren aurrean?

Zaila da publizitatearen eragina kontrolatzea. Dena dela, iragarkien aurrean jarrera kritikoa izaten saiatu beharko ginateke, eta, batez ere, seme-alabei ardurarekin kontsumitzen irakatsi. **Gaur egun, umeek jostailu gehiegi ei dute. Zer eragin dauka horrek umeengan?**

Jostailu gehiegi izateak jarrera kapritxosoak eragin ditzake umearengan, eta azkenerako, aspertu ere egiten dira; ez dute daukatena baloratzen. Gainera, urtean behin edo birritan jasotzen dituzte jostailu gehienak; hobe izango litzateke urte osoan barre-



GOIENKARIA

“Jostailuak umearen beharrian eta gustuen arabera izan behar dira”

na erostea jostailuak, gutxika. **Azken urteotan, bestalde, boladan jarri dira bideojokak. Zer deritzezu?**

Eztabaida luzeak egin daitezke bideojokoen kontuaren gainean. Hala ere, nik ez dut ukatuko alde positiboak ere badituzte-

“Jostailuen iragarkien aurrean jarrera kritikoa izaten saiatu beharko ginateke”

la. Dena dela, ez da komeni 10 urte-tik beherakoek joko horiek erabiltzea. Bestalde, harremanak sustatzen dituzten jolasetan ariztera ere animatu behar dituzte gurasoek umeak, bideojokoen pasibotasuna eta isolamendua eragiten dute-eta umeengan.

LABUR

Pilota Txapelketako finalak bihar, zapatua, jokatuko dituzte, eta 11:00etan hasiko dira

Joan den zapatuan jokatu zuten lehen mailako finalerdiko bigarren partidua, eta Larrañaga-Oruesagasti bikote elosuarra sailkatu zen finalerako. Arbulu eta Mendizabal izango dituzte aurrez aurre biharko finalean. Bigarren mailan, berriz, Ormazabalek eta Iturbek jokatu dute finala Sánchezen eta Pagaldaireren aurka.

David López de Abetxuko entrenatzaileak laga egin du erregional mailako taldea

Aurtengo denboraldian hasi zen David erregional mailako taldea entrenatzen, eta joan den astean, laga egin zuen entrenatzaile postua. Hemendik aurrera, Igor Larrea eta Gurutz Zabalo arduratuko dira taldea entrenatzeaz.

Uzarragako ospakizunetarako egitaraua gertu dute dagoeneko antolatzaileek

Abenduaren 28an, 100 urte beteko dira Uzarragako eliza inauguratu zutela. Urteurren hori ospatzeko, hainbat ekitaldi antolatu dituzte: besteak beste, abenduaren 23an, Uzarragaren historiaren gaineko berbaldia egingo du Iñigo Ramírez de Okarizek eta hilaren 28an, meza izango da, Gipuzkoako gotzaia hantxe izango dela.

Atzo, eguena, bete ziren 373 urte Antzuolak independentzia lortu zuela

1629. urteko abenduaren 12an lortu zuen Antzuolak independentzia, eta Bergaratik banatu zen. Orain dela urte batzuetatik hona, urtero ospatzen da herrian urteurren hori, herriko gazte talde batek antolatuta. Aurten ere ospatuko dute, ohi bezala, urtarril hasieran, egun hauetan frontoia okupatuta egoten delako.

‘Spirit’ filma ikusteko aukera izango dugu etzi, domekan, Olanan etxeko aretoan

Oraingo domekan, *Spirit* filma ikusteko aukera izango dugu, 16:30ean, ohi bezala. Joan den aste bukaeran, hainbat film erosi zituzten zinemako arduradunek Durangoko Azokan, eta aurreantzean, euskarazko film gehiago ikusteko aukera izango dugu.

KIROLA

PARTIDUAK

FUTBOLA
Abenduak 14
15:30: Antzuola-Eibartarrak (Gazteak)

PILOTA
Abenduak 14 (Herriko Pilota Txapelketako finalak)
11:00etan hasita:
Ormazabal-Iturbe/Sánchez-Pagaldai (2.maila)
Arbulu-Mendizabal/Larrañaga-Oruesagasti (1.maila)

EMAITZAK

FUTBOLA
Azpeitia 2 Antzuola 2 (2. erreg.)
Bergara 1 Antzuola 1 (Gazteak)

PILOTA
Herriko Pilota Txapelketako lehen mailako finalerdia
Arbulu-Mendizabal/
Aranburu-Lizarralde 22-11

Zabalo Iturgintza S.L.
Bidea eginez
Tailerra: Uzarraga bidea, 10. Antzuola. Tf. 943 78 71 78
Erakusketa: Kalebarren, 1. Antzuola. Tf. 943 78 71 79, Tf. eta F. 943 76 64 73

- Gasa
- Berogailuak
- Haire egokitua
- Enpresen mantenimendua
- Lurrin instalazioak
- Bero-aurrezteak
- Bainugelak. Proiektuak momentuan DIBaren bidez
- Birgaitze-espeditentak bideratzen ditugu

Juan Cruz
ARGAZKIAK
Ezkontza erreportaiak
Jaunartze erreportaiak
Momentuko argazkiak

BITXITEGIA
Marrokineria
Erlojuak, Bitxiak
Opari gaiak

Herriko plaza 4. Tel. 943 78 70 66. ANTZUOLA

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2002ko abenduaren 13a / 122. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oxel Erostarbe • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95


Kontseiluak Ekintza Plana aurkeztuko du

OXEL EROSTARBE

Goibeko Kultura Elkartearen laguntzarekin Ekintza Plana aurkeztuko du Kontseiluak abenduaren 18an, gaueko bederatzietan, liburutegian. Herrian euskararen aldeko mugimendua sortzea da asmoa. Erasoei aurre hartzea du helburu Ekintza Planak.

Euskararen aurkako estrategia dela eta, horri aurre hartzea da Kontseiluaren Ekintza Planaren helburua. Horregatik, eraso bera gelditzeko helburuaz gain, normalizazio osoa lortzeko egingo dute lan. Kontseiluaren asmoa da euskarak etorkizuna ziurtatzeko normalizazio neurriak eta pausoak azkartu eta sakontzea. Hain zuzen ere, horretarako jarri dute martxan Ekintza Plana.

Helburua da erakundeei eta alderdiei eragitea, euskara eta euskaldunak aintzat har ditzaten. Hizkuntza eskubideak giza eskubideak diren arren, Euskal Herri osoan urratzen ari direla erakutsi nahi du Kontseiluak. Normalizazioaren beharra gizarteratzea eta ofizialtasuna aldarrikatzea dira helburu nagusiak.



Txema Zubizarretak aurkeztuko du Elgetan Kontseiluaren Ekintza Plana.

HILAREN 18AN, AURKEZPENA ELGETAN Datorren eguaztenean, gaueko bederatzietan, Ekintza Planaren aurkezpena egingo du Kontseiluak Elgetan. Liburutegian izan-

go da aurkezpena, eta Txema Zubizarreta Gipuzkoan Kontseiluak duen koordinatzailea izango da hizlari. Ekintza Planaren oinarriak aztertuko ditu.

KALTEAK INDUSTRIALDEAN

Luiziak pareta bota zuen Lema enpresan

O.E.

Aurreko barikuan, goizeko seiak aldera, lur-jausia izan zen Pagatzako industrialdean. Ikatzarre baserrira igotzeko bidearen azpian, industrialdea atzeko aldetik babesten duen paretan gertatu zen. Lur-jausiak Lema enpresako pareta bota, eta lurrez eta urez bete zuen enpresaren zati handi bat. Kalte larrienak, ordea, ez ziren horiek izan. Badirudi lurrarekin batera pareta osatzen

zuten harriak ere erori zirela. Harriok kaltetu egin dute Lema enpresako egitura. Astean barrena azterketa egiten jardun dute teknikariek, egituraren egoera zehazteko. Emaitzen zain daude.

Segurtasun arazoak zirela-eta, barikuan ez zuten lanik egin Leman. Astelehena ezkerro, berriz, makina gehienak martxan daude. Ez dago argi kalteak nork ordaindu beharko dituen, aseguru-etxe bat baino gehiago dago-eta horretan nahastuta.



Lema enpresa barruraino sartu ziren lurra, ura eta harriak.

HERRITARREN HITZA / Jabier Arantzeta • Irakaslia

Lotsagarri

Lotsagarri bai, holaxe ibilli jakuz Euskal Herriko Unibertsitateko agintarixak Europan zihar. Holanda aldian, ba ei dago, euskarian gaiñian lan haundixak egin dittuan gizon jakintsua. Honi gizononi, ohore eta aintza emotia bururatu jakue gure unibertsitarixei. Holandarra zahar samarra eta zerbait gaixorik dala eta, Amsterdamera jua dira "Honoris causa" doktore izendatzera. Eta han, hemenguak gaztelania dotorian eta bertako aguretxo ohoregarria euskaraz.

Lotsagarri geratu da Bizkaiko Foru Aldundiko

Lobera jauna, euskerian eguma dala eta. Bilbon egindako ospakizunetan lantzian behin holakuak egittia komeni dala esanaz.

Lotsagarri geratu dira hemengo asko, euskerian alde dagozela esaterakuan. Ehunetik laurogei inguru euskerian alde ei gagoz hemen herrian. Erabiltzeko orduan, ehuneko hogeita hamarrera be allegatu ezin.

Esango dozue: pozik egon



"Hemen herrixan
ixa iñok ez dau
euskeria jakittek
biharra ikusten"

bihar giñukela Euskal Herriko Unibertsitatiak euskaria dala eta hainbeste sari emoten dittualako. Pozik, euskaria bultzatzeko zenbat diru gastatzen dan ikusitta. Pozik, euskerian alde hainbeste jende dagolako. Ba ni, ez nago pozik.

Ez nago pozik, Euskal Herriko Unibertsitatiak euskaria dala emoten dittuen sarixak, itxuria besterik ez diralako. Garbi

dakatelako, euskaraz berba egitteko kapaz ez diran irakasle gehixenek, ez daukela euskeraz berba egitten ahalegintzeko asmoik. Ez nago pozik, ikusten dotelako Diputaziño eta antzeko agintari gehixenei benetan gustatzen jakuena, lantzian behin holako jaixak egittia dala.

Ez nago pozik, hemen herrixan ixa iñok, ez dabalako euskaria jakittek biharra ikusten. Ondo pentsatzen jakue danei euskaraz berba egittea. Izugarri polita da, Europako hizkuntzaik zaharrena entzutia. Baiña hori hizkuntzoi ikasteko ahalegiña, gogortxua ete dan pentsatzen dabe gehixenek.

LABUR

Mendi Nekazaritza Elkarteari 96.162 euroko eskaera

Udalak 96.162 euroko diru-laguntzia eskatuko detsa Deba Garaiko Mendi Nekazaritza Elkartiari. Proiektu bi aurre-eruateko egin dabe dirulaguntzia eskaeria. Lehenengo proiektua edateko ura Uriarte auzora eruatia da. 78.132 euroko dirulaguntzia eskatu dabe horretarako. Eta bigarrena Sesto gaiñeko bidia konpontzeko da. Horretarako 18.030 euro eskatu dittue.

Inbertsio haundixak egingo dira, hortaz, horrek proiektuok aurrera eruateko.

JARDUNABALCOITTIK



Oxel Erostarbe

Uran
bidetik

Kontua neurrixak hartzia da. Gertau leikena aurre ikustia besteko sinplia. Artian, petrolero submarinotik fuel olixua urten eta urten. Herritarrak baltzuta eta autoridadiak... Akaso, Madridera bideko argittasunetan. Hauteskundiak badatoz, aldaketia ekarri barik ez daittezelan. To! Makillia be eruan.

Gurian be izan dogu alerta gorrixa. Kantaurixan turismua egitten diharduen mantxok ahazteka, txingorra eta euri zaparradak ekarri nahi dittut gogora. Alertia izendatu eta bide baztarrak garbittu ez.

Bidian, itsasuan besteko olatuak eta petrolerua barrenera, ondoko errekan kamioi bat billatzen dihardue. Petrolio artian ezin topau. Kontua, aurre ikustia da, neurrixak hartzia besteko sinplia.


Durangoan be, ez zan jende uholdia izan, karpian teillatutik tantaka liburuak eta diskuak buzten zittuana. Han be danak umel. Intelektualak uholdian baiñatzen ziran bittartian, kalian, zerbeza eta kalimotxo euskaldunen ferixia. Ez zan falta pala, maskara eta trajeik. Buzteko, neurrixak hartu bihar dirala. Kontua, neurrixak hartzia da, plazako etxian banderolak jartzia besteko sinplia.

KIROLA

Ubera eta Bengoetxea, DV Txapelketako finalerik kanpo

O.E.

Aurreko zapatuan Aizarnazabalen jokaturako partiduan Xabier Uberak eta Jon Bengoetxeak ez zuten egun ona izan. Erraztasun handiegia eman zituzten, eta dagoeneko Asperen agendan dagoen Martínez de Irujok ez zuen barkatu. Hasieran, nahiko parekatua izan zen norgehiagoka. Martínez de Irujo eta Zabala nagusi ziren arren, 5-5 eta 9-9 ipini zuten partidua Uberak eta Bengoetxeak. Tartean, Uberak meritu handiko tanto bi egin zituen, bi paretak eginez, hain justu ere. Azken berdinketa horren ostean, ordea, kantxatik *desagertu* egin ziren Ubera eta Bengoetxea. Martínez de Irujok eta Zabalak, berriz, tantoak egin eta egin, eta, azkenean, partidua 22-14 bukatu zen.



Aizarnazabalen jokatu zituzten DV Txapelketako finalerik kanpoak.

O.E.

LABUR

Santo Tomas ferixara juango dira erretiratuak

Erretiratuen elkartekuek irterria egingo dabe abenduaren 21ian. Bilboko Santo Tomas ferixara juango dira. Autobusak 09:00etan urtengo dau, plazatik. Urteeran parte hartu nahi dabenek Miren Villarri emon bihar dotse izena, abenduaren 15a aurretik.

Unibertsitatetik botatako irakaslien berbaldira bixar

Españiako unibertsitate eta epaitegixei desobedientzia egittiarren Euskal Herriko Unibertsitatetik bota zittuen irakaslien berbaldira antolatu dabe gaztetxekuek. Arratsaldeko bostetan izango da berbaldira bihar, gaztetxian.

UDAL AURREKONTUAK

Iazko aurrekontua hirukoiztu egingo da

O.E.

Abenduaren 26an egingo dute aurrekontuak eztabaidatzeko osoko bilkura. Patxi Basauri alkateak dagoeneko banatu die zinegotzi guztiei datorren urteko aurrekontu proposamena. Eta abenduaren 16 arte dute zinegotziek proposamenak gehitzeko.

Aurrekontu proposamenean agertzen denez, 3.559.640 eurokoa izango da datorren urteko aurrekontua. Hortaz, iazko aurrekontua hirukoiztu egingo da, Udalak iaz onartu zuen aurrekontua 1.132.593 eurokoa izan zen-eta. Egingo dituzten inbertsioak dira igoeraren arrazoi nagusia.

2.415.747 EURO INBERTSIOETARAKO Iaz, inbertsioetarako 251.610 euro bideratu zituen Udalak. Eta aurtengo proposamenak hamar bider

handiago egiten du kopuru hori. Inbertsio handienak Pagatzako eta Torrealdeko plangintza eta urbanizazioa dira. Pagatzan 1.639.747 euroko inbertsioa zehaztu dute eta Torrealdean, 60.101 eurokoa. Inbertsio horiek gainerako inbertsioetatik desberdintzen dira proposamenean; izan ere, Pagatzako zabalpenean kokatuko diren enpresek eta Torrealdean etxebizitzak sustatuko dituen enpresak egin beharko diete aurre gastu horiei.

Gainerako inbertsioetarako 716.371 euro zehaztu dituzte. Inbertsioen artean, hauek dira aipagarrienak: Espaloia aretoa (265.659 euro), eguneko zentroa (133.153 euro), semaforoak jartzeko (31.336 euro) eta irisgarriratsun proiektua (13.655). Udalaren diru sarrerekin eta dirulaguntzekin egingo diete aurre horiei.



Andoni eta Hiart onenak Hernanin

Hernaniko dantza askatuko VIII. txapelketia irabazi zeben aurreko astian Andoni Elortza eta Hiart Bolinagak. Kriskitiña dantza taldiak antolatutako txapelketan hamabi bikote izan ziran. Egunian, Orioko txapelketan izan ziran elgetarrak eta han bigarren egin zeben. Domekan, abenduak 15, Arrasateko txapelketan hartuko dabe parte./O.E.

SAIOA ARANZABAL
MASAJEAK

ELGETAN, DOMINGO ITURBE 10ean

- Kiromasajea •
- Reflexologia •
- Hidromasajea •
- Kirol masajea •



- Solariuma
- Drenaje linfatikoa
- Algekin eginiko estalkia

Dei ezazu 646 50 00 29 telefonora ordua eskatzeko



Jesus Mari Montiel
ITURGINTZA
ETA BEROGAILUAK

Artekale 3
Mo: 656783299 Eibar
Tel: 943 70 07 19
KONPONKETAK
SUKALDE
ETA BAINUGELETAN



BOLINAGA
METALAK

SALBADOR 7
ELGETA 20690
GIPUZKOA
TEL: 943 76 80 64
FAX: 943 76 83 01

ERRETRATU ZAHARRA

ELGETA

Elorrixokuen
kontrako
futbol partidua

Kuadrillen arteko posturak beti izan dira gure herrixan. Batzuetan herriko kuadrillen artekoak izaten ziran eta beste batzuetan ondoko herriko kuadrillen kontrakoak. Hau erretratuau 1948xan ataratakua da. Elgetako eta Elorrixoko kuadrilla banak alkarren kontra jokaturako futbol partiduaurretik atara zeben. Erretratuan agertzen dira Elgetako taldea osatzen zebenak.

Lehenago Pagatzan zagon futbol zelaixan makiña bat ordu egindakua dira erretratuan ikusi geinken lagunak. Partidua zeiniek irabazi zeban ezin izan dogu jakin. Elgetatik zeintzuk jua ziran ikusitta, kostauko jakuen Elorrixokuei elgetarren kontra irabaztia.

Honek dira hemen erretratuan ikusi geinken lagunak:

Goiko illaran, zutik: Juan Arrazola, Luis Altzuaran, Ignacio Ormaetxea, Juan Jose Elorriaga, Felipe Gallastegi, Andres Sarasua, Migel Ojanguren eta Candido Urriaga.



Behoko illaran, makurtuta: Patxi Basauri, Luis Mari Irazabal, Felix Ormaetxea, Felix Irazabal, Rodolfo Conget, Jesus Irazabal, Jose Arantzabal, Luzio Sarasketa, Ramon Mendikute eta Felipe Maiztegi.

Argazkia: Rodolfo Conget

ADI IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

NOLA ALDATU DIRENGAUZAK

ELGETA

Abadiaren
lehengo etxia

Elgetako parrokiak urtietan euki dau etxia San Roke kalia. Oin arteko abade gehixenak hantxe bizi izan dira. Azken urtietan elizia barrizteko egin dittuen gastuak ordaintzeko, honen etxionen goiko pisuak saldu biharra euki dabe parrokiakuek.

Zaharra zeguan abade etxia barriztuta geratu da. Ondoko erretratuetan ikusi zeinkie zelan aldatu dan.



≈ 1975

San Roke kalia dago hau etxia. Erretratuan ikusi zeinkien moduan, etxia harrizkua da. Gaiñera, hemen kaleko etxe zaharrenetakua da.



2002

Etxia barriztu eta beheko pisuakin geratu zan parrokiakia. Gaiñontzekua saldu egin zeben, elixan egindako barrikuntzak ordaintzeko.



Zumelaga
JATETXEA

60 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5. BERGARA. 943 76 20 21

**TELEIXA
BILTEGIAK**

**Eraikuntza
materialak**

Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tf. 943 76 27 93

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrial

Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 /
666 517 295

ezpeleta
Ostalaritzarako
ehungintza

Ostalaritza eta
egoitzetarako
mahai-zapi eta
industri-ehunak

San Lorenzo 1, Bergara
Tf. 943 76 28 77
Tf. eta faxa: 943 76 17 09

ZARAITZU

Artisau-produktuak

ZABALIK Fraiskozuri plazako 3an
Telefona: 943 76 46 64

OSPAKIZUNETARAKO


- Gazta
- Barazki ekologikoak
- Onddoak
- Ehiza-produktuak
- Ahatekiak
- Nafarroako kontserbak
- Valentziako artisau turroiak
- Estatu osoko artisau produktu sorta ezin hobea...

EDOZEIN EGUNETARAKO

- Bertako barazki ekologikoak
- Gaztelako lekadunak: dilistak, garbantzuak, babarrunak...
- Foie-grasa
- Konfita
- Urdaiazpikoa
- Maigreta
- Patea
- Primerako Guijueloko hestebete iberikoak...

ARDOAK

- Errioxa
- Rueda
- Duero Erriberako ardoak,
- Nafarroako ardo apartsuak: Basondoa eta beste marka batzuk



BERTAN DITUGU GABONAK ZORIONAK!

Olentzero egunean, abenduaren 24an, 11:00etan eskolan elkartuko gara kaleetan zehar Gabon kantak kantatzeko



Gurasoentzako entseguak abenduaren 12,17 eta 19an Ikastetxeko aretoan, 18:30ean.



Irratsaio bereziak: Abenduaren 16,17,18 eta 19an, 13:15ean Gabon Kantak entzuteko aukera Eskola Irratian.

FM 108.0



Eta Haur Hezkuntzako Gabonetako jaialdia abenduraren 19an, arratsaldeko 15:15ean eskolako aretoan!



SAN MARTIN

herri ikastetxea

B. Laskurain 25
Tel. 943 76 21 47
182 posta kutxa

20570 Bergara

Edozein egoera menderatzen
lagunduko dizun auto batekin amets egiten duzu?

Vectra berria orain, 16.500 €-tik aurrera.



Opel Vectra berria

Xasis berria Gidatzeko Sistema Interaktiboarekin (IDS), non direkzioak, frenoak eta esekidurak elkarrekin lan egiten duten errepidearen kontrol osoa lortzeko. Vectra guztiz berritua, Ecotec balbula anitzeko motor gama berritzailearekin: 2.2 DTI / 125 ZP edo 3.2 V6 / 211 ZP edo potentzia handiko motorra duen GTS bertsioa.



Opel. Ideia berriak. Auto hobekak.

*Fabrikatzaileak gomendatutako salneurria Penintsulan eta Balear Uharteetan Vectra Club 1.8 16 V modeloan. Hau guztia barne: garraioa, BEZa, matrikulazio zerga, Prever Plana eta berria ez den ibilgailuen akzioa. Hil bukaera arteko promozioa. Iragarkian agertzen den modeloa ez da eskaintzen dena.

Giauto Bergara

Kontzesionario ofiziala:

Olabarrena auzoa z/g. Tel. 943 76 33 44/45/46/47. BERGARA

www.giauto.es